# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia — Iruñean, 1999ko maiatzaren 28an — 45 ZK.

**A U R K I B I D E A**

F SAILA:
**Galderak:**
—“Instalazio berrietarako obrak, ondare higigarria birmoldatu eta altzariz hornitzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
—“Oinarrizko gizarte zerbitzuak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
—“Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—“Proiektuak eta lan-eremuak birgizarteratzen ari diren pertsonentzat” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—“Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialerako transferentzia” kontusaila gutxitzeari buruz eta “Rating-a lortzeko lanak eta aholkularitza” kontusaila handitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Nafarroako Gobernuaren menpeko Administrazioetako sistema informatikoetan 2000 efektuak izanen dituen ondorioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—“Lanera sartze babesgarrirako programa berezia” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—“Lan auzietarako judizioz kanpoko ebazpen organoarentzako transferentziak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—“CESen dauden langileen sindikatuetarako, ekonomia sozialeko jardueretarako eta enpresa-erakundeetarako diru-ordainak, hartan parte hartzeagatik” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Energiaren erabilpen eragingarrirako SAVE programak finantzatutako ekimen edo proiektuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—Burlatako Lipauto enpresaren inguruan hartutako konpromisoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

—Altsasuko mugapean Ulaiar errekak duen kutsadurari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Santa Luzia sakana mendiko bide eta mendibideak konpontzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Arakil ibaian arrainak hilik agertzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Arakil ibaian arrain hiltzearen zergatiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—“Hirigintza-planeamendurako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—“Ingurugiro-hezkuntzarako dirulaguntza eta programak eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—“Zentral txikientzako kalte-ordainak, ur-emari ekologiketara egokitu daitezen” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—“Orkoien-Cordovilla linea aldatzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
—“Kutsadurari aurrea hartzea eta zuzentzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
—“Naturguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
—“Naturaren interpretazio-zentroak. FEOGA, 5b” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
—“Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk) eta ibaiak bereoneratzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
—“Oihan Planari dirulaguntzak eta plan horri buruzko jarduketak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
—“Kooperatiba araubideko makineria eta produkzio-bideetarako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
—“Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
—“Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—“Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
—“ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
—“Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
—“Laguntza teknikoa. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
—“Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
—“Lurzati-antolamendua. Jabetzaren aldaketa lanak. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
—“FEOGA-O nekazaritza ustiapenen eraginkortasun hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
—“Kalitatea duen haragia. Nafarroako Aratxea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
—“Errentamenduen Arbitraje Batzordearen Baloreetarako Dietak”, 26460-5 lerroa, kontusailera egindako kreditu-transferentziari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
—“Aukera Berdintasun Plana” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# "Instalazio berrietarako obrak, ondare higigarria birmoldatu eta altzariz hornitzea" kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak "Instalazio berrietarako obrak, ondare higigarria birmoldatu eta altzariz hornitzea" kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Instalazio berrietarako obrak, ondare higigarria birmoldatu eta altzariz hornitzea" kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak, aipatu kontusaila benetan ondare higiezinarena dela argitu ondoren, eman duen erantzuna:

Kontusail horren kargura burutu diren edo burutzen ari diren jardueren zerrenda:

– Zunda etxea: Oronoz-Mugairi. Fatxada eta estalkiko konponketak.

– Catalán etxea: Oronoz-Mugairi. Fatxadan konponketak eta estalkian ukituak eta kanpoko arotzia eta behatokia konpontzea.

– Xabierko basilikaren inguruak txukuntzea. Ureztaketa jartzea eta birlandaketak.

– Invermi altzariz hornitzea. Bulegoko altzariak erostea, Iruñeko Fuerte del Príncipe eraikineko bulegogunea ahal denik eta gehien probetxatzeko.

– CPI Ogasun Departamentua. "Iruñeko Karlos III., 4. zenbakian Ogasun Departamentuak duen eraikinaren jarduera sailkatuari buruzko espedientea eta eraikin hori NBE-CPI/96era egokitzea" izeneko proiektua idaztea eta obraren zuzendaritza.

– Iratxeko Monasterio kaleko berritze lanak. Iruñeko Iratxeko Monasterio kaleko 22an dagoen Informatika Zentroko bulegoak konpontzeko proiektua idaztea eta obraren zuzendaritza.

– Ogasun Departamentua. Tutera. Errenta aitorpenerako bulegoan igeltseritza lan batzuk egitea.

– Lurralde Aberastasuneko ponpagailua. Iruñeko Orreaga etorbidea. Lurralde Aberastasuneko sotoko artxibategiko xurgaketa ponparen instalazioa aldatzea.

– Erakunde laguntzaileen bulegoa. Iruñeko Iturrama kaleko 72an dagoen errenta aitorpenaren kanpainan laguntzen duten erakundeentzako lokala egokitzea.

– Lurralde Aberastasuneko fondo zuzkidura. Orreaga etorbideko 4. zenbakiko eraikineko bizilagun direnez, fatxada zaharberritzeko egin beharreko ekarpena.

– Infopoint-eko altzariak. Nekazaritza Departamentuak Tutera kaleko 20an daukan bilera aretoan altzariak jartzea, Departamentuak eta kale bereko 26an bulegoak dituzten Infopoint-ek batera erabil ditzaten.

– Nafarroako Administrazio Auzitegia. Auzitegi horrek Iturrama kaleko 10ean dauzkan bulegoak handitzea eta berritzea.

| SUSTATUTAKO JARDUERAK | GASTU BAIMENDUA | ADJUDIKAZIOA (Ebazpena) | BETETZEA | ORDAINDUA |
|---|---|---|---|---|
| Zunda etxea | 1.875.894 | 97/98, 5 MAR | burutzen | 0 |
| Catalán etxea | 3.426.930 | 141/98,18 MAR | burututa | |
| Xabier zaharberritzea | 19.992.919 | 296/98, 1 EK | burutzen | 0 |
| Invermiko altzariak | 32.526.412 | | | |
| CPI. Ogasun Dep. | 1.450.000 | 311/98, 5 EK | burutzen | 0 |
| Iratxe kaleko berritze lanak | 1.995.000 | 312/98, 5 EK | burutzen | 0 |
| Ogasun Dep. Tutera | 470.904 | | burututa | 470.904 |
| Lurralde Aber. ponpagailua | 638.369 | | burututa | 638.369 |
| Erakunde Lag. Bulegoa | 266.938 | | burututa | 266.938 |
| Lurralde Aberastasuneko fondo zuzkidura | 608.750 | | | 608.750 |
| Infopoint-eko altzariak | 1.900.000 | Ez | Ez | 0 |
| Nafarroako Adm. Auzitegia | 4.238.524 | | burutzen | 0 |

Gastua onetsia ez duten 1998. urterako aurreikusitako obrak:

– González Tablas: González Tablas kaleko 7an Gobernuaren jabetzako eraikina berritzea eta handitzea, bertan kokatu daitezen Gizarte Ongizate Departamentua, Toki Administrazio Departamentua eta baita Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua ere. Oinarrizko proiektua eginda dago jada, eta proiektuaren lehen fasea onetsita. Proiektu osoaren aurrekontua 940.828.981 pezetakoa da, eta lehen fasearen exekuzio proiektua (hegoko alboa) 162.824.004 pezetakoa. Iruñeko Hiri Ordenamendurako Plan Orokorraren aldaketa espedientea oraindik ebazteko dago. Onartzeke dagoen gastua urte anitzetakoa izanen litzateke.

– CPI Ogasun Departamentua. Proiektuaren exekuzioa.

– Iratxeko Monasterioko Informatika Zentroaren bulegoetako berritze lanak. Proiektuaren exekuzioa.

– Administrazio artxibategia. Cordovillako Super-Ser egon zeneko eraikin zaharra zaharberritzeko proiektuaren lehen fasea betetzea eta Nafarroako Gobernuaren administrazio artxibategi bihurtzeko egokitze lanak. Obra osoaren oinarrizko proiektua eta lehen fasearen exekuzio proiektua aurkeztu ziren eta, berrikusi ondoren, Artxibategiko eta Ondare Zerbitzuko arduradunek emandako irizpideen arabera aldatzen ari dira.

– Herrilan Departamentuaren nabea eta Ibilgailuak. Cordovillako Super-Ser egon zeneko nabe zaharra Herrilan Departamentuaren ibilgailuen garaje eta lantegi bihurtzeko obrak, eta baita, bertan, makineriaren biltegia egitekoak ere. Gastua, urte anitzetakoa, onetsi gabe dago oraindik. (Finantzaketaren zatirik handiena proiektuak ukitzen dituen departamentuen kargura doa).

– Karlos III.a, 36. Estatistika Institutuarentzako lokalak egokitzea.

– Sarrigurengo eliza. Garbikuntza eta fatxada sendotzeko lanak.

– Esparza de Salazarren dagoen errota-etxea.- Teilatua eta kanpoko arotzia konpontzea.

– Aholkularitza Juridikoko pintura.

| AURREIKUSITAKO JARDUERAK | KALKULATUTAKO ZENBATEKOA |
|---|---|
| González Tablas | 162.824.004 (máximo) |
| CPI. Ogasun Departamentua | 14.200.000 |
| Iratxe Monasterioko erreforma | 25.000.000 |
| Administrazio Artxibategia | 70.000.000 |
| Herrilan eta Ibilgailuen nabea | 4.080.795<br>+4,5 mill.Ppto.99 |
| Karlos III.a,36 | 8.000.000 |
| Sarriguren eliza | Sin valorar |
| Espatza-Zaraitzun errota-etxea | 3.000.000 |
| Aholkularitza Juridikoko pintura | |

Ondare Zerbitzuak kudeatu baina beste bide batzuetatik finantzatzen diren beste obra batzuk:

– CPI. Herrilan Departamentua.

a) Iruñeko S. Ignazio etorbidean Herrilan Departamentuaren erakinaren proiektua idaztea eta obraren zuzendaritza CPI/96 Oinarrizko Arau-

ra egokitzea. (Adjudikazio prozedura prestatze fasean, oraindik).

b) Proiektua betetzea.

– Parlamentuaren egoitza berrirako aholkularitza.

– Oliteko mahasti eta ardoen erakusketa azoka.

– Garraio Zerbitzuarentzako bilera aretoa egokitzea.

– Tributu arloko Ebazpen Organoaren egoitzan aire egokitzailea jartzea.

– Fiteroko monasterioko Informatika Zentroko arotzia berritzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz. Proiekua betetzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: Jose María Aracama Yoldi

---

## “Oinarrizko gizarte zerbitzuak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak “Oinarrizko gizarte zerbitzuak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko Javier Arteaga Olleta jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 33670-3 lerro zenbakiko "Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak" izena duen kontusailaren betetze mailari buruz; kontusail hori 795.000.000 pezetakoa da. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Otsailaren 10eko 364/1998 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak aginduta, 1998an 47.732.372 pezetako transferentzia baimendu zen Tuterako Udalaren alde, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko gastuetarako, amaituriko hiru hilekotan ordaintzeko. Transferentzia horretatik, gaurko egunera arte, lehen hiru hilekoari dagokiona ordaindu da, hau da, 11.933.093 pezeta.

Maiatzaren 5eko 1323/1998 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak aginduta, 117.552.781 pezetako gastua onetsi zen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Etxez Etxeko Laguntza egitarauen funtzionamenduari partzialki diruz laguntzeko; diru hori aurrerakin gisa eman da, eta 1997an emandako kopuruaren % 50 egiten du. Kopuru hori nola dagoen banatuta erantzun honi datxekion 1. eranskinean azaltzen da.

Ekainaren 5eko 1805/1998 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak aginduta, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Programa Orokorrei dagokien dirulaguntza onetsi zen; 2. eranskinean aipatzen da, zehatz, zein tokitarako eta zein kopuru onetsi ziren. Dirulaguntza horien kostua, guztira, 149.344.275 pezetakoa izan da.

Hainbat osasun eskualde oinarrizkori dirulaguntzarik ez ematearen arrazoia hau da: azken ebazpen hori eta aurrekoa onartzeko orduan, osasun eskualde horiei zegokien udalek edota mankomunitateek ez zeukaten aurkeztuta eskaturiko dokumentazioa.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta, horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Ekainaren 10eko 1828/1998 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutu-

ko zuzendari kudeatzaileak aginduta, 1.540.298 pezetako gastua onetsi zen Barañaingo Udalari laguntzeko, tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako etxebizitza bat uzteagatik, Harrera Etxe bezala erabili dezaten.

Labur esanda, 93300-4600-3134 kontusailari (1998ko Aurrekontuaren 33670-3 izeneko lerroari) kargatu zaion gastua, 316.169.726 pezetakoa da. Une honetan, berariazko programei diruz laguntzeko eskaerak daude aztergai, aipaturiko lerroaren diru-kopururik handiena osatzen baitute.

Hori guztia jakinarazi dizut, bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

---

# “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak “Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko Javier Arteaga Olleta jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 33600-2 lerro zenbakiko "Bizibiderik ez duten Nafarroako familientzako laguntza" izena duen kontusailaren betetze mailari buruz; kontusail hori 821.000.000 pezetakoa da. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

| JARDUERA | BETETAKO ZENBATEKOA | ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| Laneratzea | 21.821.478.- | 21.821.478.- |
| Famili integrazioa | 60.514.021.- | 26.692.318.- |
| Aparteko laguntzak | 38.846.147.- | 20.183.276.- |
| Oinarrizko errenta | 348.702.077.- | 206.124.456.- |
| Babesturiko Enplegu Soziala (*) | 113.614.146.- | 12.085.605 |

(*) Iruñeko Udalaren espedientea kontabilizatzeko dago oraindik.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta, horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

FAMILI ETA GIZARTE-INTEGRAZIOARI LAGUNTZA

Arrazoi pertsonal edo sozialengatik laguntza behar duten pertsonei zuzenduta dago. Bi helburu ditu: famili estatusari eta errotze sozial eta geografikoari eusten laguntzea, eta baliabiderik ezagatik inor zentruren batean sartu beharrik ez izatea.

Onuradunen artean, besteak beste, hauek daude: buruko gaitza dutenak, etxekoandrea ordaindu behar dutenak, oinarrizko errenta izan dezaketen 18tik 25era bitarteko gazteak (25 urte izateagatik laguntza horretatik kanpo geratzen dira), etab.

Jarduera-kopurua: 104

Hitzartutako kopurua: 43.366.291 pta.

LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA.

Errehabilitaziorako tratamendu anbulatorioak behar dituzten pertsonak, beste prestazio batzuen barruan sarturik ez badaude eta normalizatutako baliabideetatik horiek bideratzerik ez badago; gainera, laguntza horiek per capita errentaren araberakoak izan behar dute, 168/90 Foru Dekretuaren 9. artikuluaren 2. atalean ezarritakoaren arabera.

Jarduera-kopurua: 0

Hitzartutako kopurua: 0 pta.

APARTEKO LAGUNTZAK.

Baliabiderik ez izateagatik oinarrizko gastuei aurre egiteko sortzen diren egoera larriei aurre egitea dute helburu, baldin eta ezin badira normalizatutako baliabideetatik bideratu.

Osasun-prestaziorik ez dago aurreikusita, ezta berariazko hezkuntza-prestaziorik ere.

Horra zer hartzen den kontuan: premia, eskatzailearen egoera ekonomikoa, laguntzaren errentagarritasuna eta egoera salbuespenezkoa izatea (diru-sarrera gutxi dituztenak kanpoan geratzen dira).

Jarduera-kopurua: 71

Hitzartutako kopurua: 34.528.035 pta.

BABESTURIKO ENPLEGU SOZIALA.

Gizartearen ikuspuntutik interesgarriak diren jarduerak aurrera eramatea du helburu; gizarteratze arloan lanean ari diren toki korporazio eta entitateek antolatzen dituzte jarduera horiek. Lan- eta gizarte-kontraprestazioetariko bat da.

Jarduera-kopurua: 15

Onuradun-kopurua: 289

Hitzartutako kopurua: 314.278.494 pta.

Ondokoen eskabideak baloratu, erabaki eta hitzartu gabe daude oraindik: Auñamendi, Berriozar, Buñuel, Burgi, Burlata, Lizarra, Lodosa, Noain, Erriberri, Zangoza, Tutera, Iltzarbe ibarra, Valtierra.

LANERATZEA, LANTEGIETAN.

Oinarrizko Errentaren hartzaileei edota gizarteratzeko premian dauden pertsonei (Nafarroako Gizarte Ongizateraren Institutuak hala sailkatu izanagatik), lanpostu bat eskaintzea. Enpresa kontratatzaileari gutxienez 6 hileko dirulaguntza ematen zaio, eta gehienez ere 36 hilekoa.

Jarduera-kopurua: 38

Hitzartutako kopurua: 21.821.478 pta.

| | Guztira | Udalak | Irabazi asmorik gabeko erakundeak | Enpresak |
|---|---|---|---|---|
| Kontratatzaileak | 18 | 7 | 1 | 10 |
| Langileak | 37 | 21 | 4 | 12 |

OINARRIZKO ERRENTA

Prestazio ekonomiko hau pertsona bakarreko etxe eta famili unitateei zuzenduta dago; helburua, gutxieneko bizi-baldintzak ziurtaturik daudela bermatzea.

Zenbatekoa 43.000 pezetakoa da 1998. urterako; zenbateko horri 6.600 pezeta gehitu behar zaizkio famili unitate bakoitzeko, eskatzailea salbu, eta inolaz ere ezin da lanbide arteko gutxieneko soldata gainditu.

Jarduera-kopurua: 1.227

Hitzartutako kopurua: 333.177.409 pta.

BANAKAKO LAN PROIEKTUAK

Zuzeneko prestazio ekonomikoak, bazterketa soziala sortzen duten egoerak saihestu edota leuntzeko. Asmoa lanpostuak sortu edota sendotzea da, epe luzean erantzun tinkoa lortu daitekeelakoan.

Jarduera-kopurua: 0

Hitzartutako kopurua: 0 pta.

INTEGRAZIORAKO ETXEBIZITZAKO GASTUAK

374/97 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Integrazio Sozialerako Etxebizitzak arautzen baitu.

6. art.: Erabilitako etxebizitza erosteko laguntzak; errentan du eragina.

14. art.: Irabazi asmorik gabeko erakundeekin hitzarmenak.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren konpromisoa

| Hitzartutakoak | Zenbatekoa | Etxebizitza kopurua |
|---|---|---|
| Caritas | 8.000.000 | 25 |
| Anafe | 640.000 | 2 |
| La Majari | 3.200.000 | 10 |
| Fundación Santa Lucia-Adsis | 1.600.000 | 5 |
| Traperos de Emaus | 2.560.000 | 8 |
| Guztira | 16.000.000 | 50 |

Honekin batera doa, eranskin gisa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren kudeaketatxostena , 1998ko ekainaren 15ekoa.

Hori guztia jakinarazi dizut, bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu txostena Foru Parlamentarioen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

# “Proiektuak eta lan-eremuak birgizarteratzen ari diren pertsonentzat” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak “Proiektuak eta lan-eremuak birgizarteratzen ari diren pertsonentzat” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko Javier Arteaga Olleta jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 33540-5 lerro zenbakiko "Proiektuak eta lan-zelaiak bergizarteratzen ari diren pertsonekin" izena duen kontusailaren betetze mailari buruz; kontusail hori 80.000.000 pezetakoa da. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

BERGIZARTERATZEA

Bazterketa-egoeran dauden pertsonak nahiz taldeak integratu edo birgizarteratzeko, jarduera bereziak sustatzea.

Helburutzat ditu:

- Toxikomanoak.
- Baztertuak bergizarteratu eta laneratzea.
- Bazterturiko gutxiengo etnikoei laguntza.
- Eta abar.

Familia eta Komunitate Arloetako eduki bera, ondoko modalitateak barruan sarturik:

LANERATZEA LANTEGIETAN

Jarduera-kopurua: 68

Hitzartutako kopurua: 41.818.330 pezeta

| | GUZTIRA | UDALAK | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK | ENPRESAK |
|---|---|---|---|---|
| KONTRATATZAILEAK | 47 | 5 | 4 | 38 |
| LANGILEAK | 58 | 7 | 5 | 46 |

BANAKAKO LAN PROIEKTUAK

Jarduera-kopurua: 4

Hitzartutako kopurua: 2.963.000 pezeta

FAMILI ETA GIZARTE-INTEGRAZIOARI LAGUNTZA

Jarduera-kopurua: 1

Hitzartutako kopurua: 1.100.000 pezeta

*Aparteko laguntzak*

Jarduera-kopurua: 0

Hitzartutako kopurua: 0 pezeta

Hori guztia jakinarazi dizut, bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

# “Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialerako transferentzia” kontusaila gutxitzeari buruz eta “Rating-a lortzeko lanak eta aholkularitza” kontusaila handitzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialerako transferentzia” kontusaila gutxitzeari buruz eta “Rating-a lortzeko lanak eta aholkularitza” kontusaila handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialerako transferentzia" kontusaila gutxitzeari buruz eta "Rating-a lortzeko lanak eta aholkularitza" kontusaila handitzeari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Ekonomi eta Gizarte aferen Kontseiluak funtziona dezan, Nafarroako Gobernuak dauzkan giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzen dira. Horri esker, eskuragai dauden baliabideak egoki erabili, eta, ondorioz, gastu gehigarriak egiteko beharra txikiagoa izanen da.

2.- Kontusail honetan bildutako baliabideak oinarri harturik, Nafarroako Gobernuak jaulki dituen errenta finkoko baloreak kalifikatzeko behar diren lanei ekiteko asmoa dago. Aipaturiko kalifikazioa nazioarteko agentzia espezializatuek ematen dute, eta jaulkitzailearen kaudimen-adierazlea da; horrek badu eraginik aipaturiko tituluek merkatuan izanen duten harreran, eta, ondorioz, baita jaulkitzaile desberdinentzako zorpetzeak eragindako finantza-kostuan ere. Hortaz, kalifikazioa zenbat eta hobea izan, tituluak onartzeko erabiliko den interes-tasa orduan eta txikiagoa izanen da (eta jaulkitzailearentzako, orduan eta txikiagoak izanen dira finantza-kostuak); aldiz, kalifikazioa txarra bada, beharrezkoa izanen da interes-tasa handiagotzea, arrisku handiagoa konpentsaturik uzteko merkatuan.

Zor publikoa jaulkitzeko orduan, orain arte Nafarroak ez du arazorik izan merkatuan, beti harrera ona egin baitzaio jaulkipen horri. Hala ere, moneta-politika berriaren ildo nagusiek beharturik, ezinbestekoa da, eragiketak egiterakoan, kaudimena ongi frogatuta duten tituluen bidez egitea eragiketa horiek, eta, ondorioz, baliteke ustekabeko kalifikazio-beharra sortzea; hala azaldu zuen, duela gutxi, Espainiako Bankuak.

Hori dela eta, ahalik eta kalifikaziorik onena lortu asmoz, zuhurra iritzi zaio lan horri berehala ekiteari: aurrekontu-legeren batek baimen formal zehatza ezarri dezan itxaron gabe, alegia. Horrela, hasierako emaitzak uste bezain onak izanen ez balira, maniobratzeko denbora egonen litzateke betiere.

Kontusail honetan bi kontratazio eginen dira: nazioarteko kalifikazio-agentziaren azterketa-lana, bata; eta negoziaziorako laguntza teknikoa, bestea. Laguntza tekniko horrek, funtsean, hainbat azterketa eta txosten egitean datza (Nafarroako Gobernuaren finantza-kaudimena eta sendotasuna frogatzeko).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: Jose María Aracama Yoldi

# Nafarroako Gobernuaren menpeko Administrazioetako sistema informatikoetan 2000 efektuak izanen dituen ondorioei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuaren menpeko Administrazioetako sistema informatikoetan 2000 efektuak izanen dituen ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren menpeko Administrazioetako sistema informatikoetan "2000 efektuak" izanen dituen ondorioei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

Milurtekoa aldatzean, informatika aplikazioetan sortuko ziren efektuak aztertzen hasi ginen 90eko hamarkadan. Kode hutsa aldatzeagatik eman ziren zifrak benetan ziren asaldagarriak, eta balio gehitua zero.

2000 efektuak honako hiru atal nagusietan izanen du eragina:

a) Hardware-a: mikrokodeak.

b) Oinarrizko software-a eta sistema eragileak.

c) Aplikazioen software-a: merkatuko tresnak eta garapen propiozkoak.

a) eta b) atalei dagokienez, lan mailakatua eta ordenatua jarri da abian, informatika materiala (hardware-a) ordezkatzeak eskatzen duen erritmoan; oinarrizko software-a eta sistema eragileen ondoz ondoko bertsioak ere aldatuz doaz.

c) atalari dagokionez, instituzioen arloan lan egin da Nafarroako Gobernuaren teknikariekin aplikazioen inbentarioa eginez; hartara, ordenagailuak zaharkituak egotea eta zero arriskua erabili dira irizpide, eta inbentarioa azpimultzo batera mugatu da, hau da, benetan aipatu efektuen eragina jaso dezaketen ekipoen inbentarioa egin da.

Benetan efektu horien eraginak jasoko dituzten aplikazioei bi motako jarduerak aplikatuko zaizkie:

1. 2000. urtea baino lehen eraberrituko diren aplikazioak (horiek guztiek, batez beste, 10 urteko bizitza dute).

a) Gaur egun duten kodeetan tresna horiek izanen duten eragina aztertzea, horiek egokitzeko denbora eta diru aurreikuspenak egiteko.

b) Berrikuntzari Administrazioaren arlo desberdinak hobetzeko proiektu eta balio gehitzea bailiran ekitea. Proiektu horiek, beraz, ez dira informatikoak, antolamendu proiektuak baizik; horien artean, besteak beste, honakoak dira aipagarrienak:

– RRHH proiektua: garapena, 98-99 urteetan.

– Sistema ekonomikoa: garapena, 98-99-2000 urteetan.

– Osasun sistema: garapena, 97-98-99. urteetan.

Proiektu horien garapenean atzerapenik emanen balitz, egungo aplikazioaren kode aldaketa aktibatuko litzateke, hori baita aplikazio guztiak zuzenduta egoteko ziurtasuna emanen ligukeen bigarren aukera.

2. Hasiera batean berrituko ez diren aplikazioei dagokienez:

a) Efekturaren eraginen azterketa.

b) Kodea bihurtze hutsaren garapena, salbu aukera egon aplikazioaren zati bakar bat berritzeko.

1997ko urtarriletik aurrera ekin zitzaion “2000 efektua” arazoari, Europako Moneta Batasuneko sistemen egokitzapenarekin batera, eta hona estrategia:

1. Ukitutako sistemaren zatirik handienaren berrikuntza lanak azkartzea, horrela balio gehitu berri bat lortzeko.

2. Kodearen bihurtze hutserako lana ahal denik eta txikiena izan dadin lortzea.

3. Egungo garapenetan “2000 efektuak” ezabatzea eta euroa kontuan izatea.

Garapen berri orotan edo berrikuntza proiektu orotan kontuan hartzen dira “2000 efektua” eta euroaren eraginak, eta hala egiten da eginkizun hori antolamenduaren kulturaren eskakizun gisa onartuta.

Eragin horiei aurre egiteko eta berrituko ez diren aplikazioentzat konponbide bat bilatzeko eta berrituko direnez ziurtasuna izateko, proiektu bat zehaztu da, “Nafarroako Gobernuaren aplikazioak milurtekoaren aldaketara eta Europako Moneta Batasunera egokitzea” izenekoa, eta proiektu hori honako bi fasetan garatuko da:

1. Eraginaren diagnostikoa eta aldaketarako plan orokorra.

2. Kodea bihurtzea.

Lehen fase horretarako lehiaketa publikoa sustatu da, eta Centrisa, SAri adjudikatu zaio 14.231.460 pezetatan. Lanak ekainean hasi ziren eta irailean bukatuko dira.

Lehen fasea amaitu ondoren, zer aplikazio bihurtuko diren (zatika edo osorik) erabakiko da, eta, horrela, eragina eta egin beharreko ahalegina nolakoa izan behar den jakinen da, eta baita horretarako behar den epea eta lortzeko modua ere.

Horren guztiaren ondotik eginen den kontratuan aipatu bihurtze lana adjudikatuko da; eta horri 1998ko azken hiruhilekoan eta 1999. urte osoan ekinen zaio eskura dauden baliabide guztiekin.

Laburtzeko, proiektuaren kostua, ez bakarrik 2000 efektuarena, baita euroarena ere, hurrengoa da:

| | |
|---|---|
| 4.231.460 pezeta | Diagnostikoa. Proiektua. |
| >100.000.000 y < 200.000.000 pezeta | Kodigoa bihurtzea (kaltearen arabera eta baita berritu beharreko aplikazioen asegurua exekutatzen den ala ez) |
| 0 pezeta | Hardaware-a, software-a, sistema eragilea, balio gehitua duten aplikazioak berritzea |

2000. urtearen hasieran instituzioaren barruko baliabideen aurreikuspen bat eginen da, identifikatu gabeko aplikazioren batean edo aplikazio pirataren batean (Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak normalizatu gabea) 2000 efektuaren eraginak antzemanen balira, horiei aurre egiteko.

Laburturik:

• Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, proiektu berean sartu dira EUROa eta 2000 efektua.

• Oinarrizko ordenagailu eta software-ak ez dira sartuko ordenagailu parkearen eta programa lizentziadunen berrikuntza asmotan.

• Aplikazioetako software-an sistemarik garrantzitsuenak aldatzen hasiak dira jada, eta baita efektuaren eraginak diagnostikatzen ere, modu horretan, 1998. eta 1999. urteetan zehar programak berritzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## “Lanera sartze babesgarrirako programa berezia” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak “Lanera sartze babesgarrirako programa berezia” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 30950-1 lerro zenbakiko “Laneratze babesturako programa berezia” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

Villafrancako Udalak antolatu dituen interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak jarri

dira abian; orain arte, 1.667.948 pezeta ordaindu dira, hau da, onartutako zenbateko osoaren % 50.

Langabezian dauden langileak izaera orokorreko edo sozialeko obretan aritzeko kontratatzeko zenbatekoak ebatzi, eta hala jakinarazi zaie ondoko udal eta toki entitateei; hona, zehazturik, laguntzen zenbatekoak, guztira (oraindik, ez da bat ere abonatu).

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

---

# "Lan auzietarako judizioz kanpoko ebazpen organoarentzako transferentziak" kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak "Lan auzietarako judizioz kanpoko ebazpen organoarentzako transferentziak" kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 31300-2 lerro zenbakiko "Lan gatazkak epaitegietatik kanpo konpontzeko organoarendako transferentziak" izena duen kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

1996ko apirilaren 25ean "Nafarroako Lan Auziak Konpontzeko Auzitegia" fundazio pribatua sortu zuten Nafarroako Enpresarien Konfederazioak (CEN) eta UGT eta CCOO sindikatuek. Fundazio horrek eta Nafarroako Gobernuak akordio batzuk sinatu zituzten 1996ko ekainaren 28an eta urte bereko abenduaren 11n; akordio horietan, Nafarroako Gobernuak fundazio horri aipatu auzitegiaren gastuak ordainduko dizkiola ezarri zen, eta baita gastu horiek nola ordainduko diren ere.

Akordio horien bidez, hurrengo kontusailaren zenbateko osoa –hau da, 88 milioi pezeta– konprometitu da: 83100-4810-4-3151, "Lan auzietako judizioz kanpoko ebazpen organoarentzatako transferentziak", 31300-2 lerro zenbakia.

Abonatutako zenbatekoei dagokienez, eta kontuan izanik, aipatu akordiekin bat, ordainketak hiruhileroka, eta aurreko hiruhileko gastuak egiaztatu ondoren, egiten direla, gaurdaino ordaindu den zenbatekoa 41.221.988 pezetakoa da: urteko lehen bi hiruhilekoei dagokiena, hain zuzen.

Dokumentu honi erantsita doaz, Lan Auzietako Judizioz Kanpoko Ebazpen Organoaren aurrekariak eta berak eginiko jarduerak eta sustatu dituenak:

1.- AURREKARIAK

Nafarroako Lan Auziak Konpontzeko Auzitegiaren edo Nafarroako Lan Auziak Konpontzeko Auzitegiaren zeregin bakarra langile eta enpresen artean sor daitezkeen edozein motako lan auzietan (banakoak zein kolektiboak) esku-hartzea da, betiere bi parte horietako batek eskatzen badu eta auzia Foru Komunitatearen esparru geografikoan bada; horretarako aipatu mahaiak erabiliko dituen prozedurak bitartekaritza, elkar aditzea eta arbitrajea izanen dira.

Hortaz, bi kategorikoak izanen dira aipatu mahaiak eginen dituen gastuak:

a.- zuzeneko gastuak, hau da, bitartekaritza, elkar aditze edo arbitrajerako esku-hartzeak sortuko dituenak. Gastu horiek gatazka bakoitzean parte hartuko duten profesionalen lansarien bidez gauzatuko dira.

b.- gastu orokorrak, hau da, aipatu organoaren egitura eta kudeaketari dagozkionak, adibidez, langileen soldatak (gaur egun bi langile), argia, ura, garbikuntza, lokalen errenta, eta abar. Horiek guztiak egiazta daitezke, xehetasun osoz, eta baita aurreikusi ere 1998. urterako, Nafarroako

Gobernuaren Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan aurkeztu eta Foru Parlamentuak onartu dituen urteko aurrekontuetan.

Hori dela eta, organoaren kudeaketa honako irizpideetan oinarritzen da:

– Auzitegiaren jarduerari alde batek hala eskaturik ekinen zaio, eta horrela bitartekaritza, elkar aditze eta, kasua balitz, lan arbitrajea sustatuko dira.

– Bitartekaritza eta elkar aditzerako egintza horietarako, 5 egun baliodunen epea jarri da, eta epe hori gatazkan esku-hartzen duten aldeetako batek lan erreklamazioa aurkezten duen une berean hasiko da kontatzen.

– Aurrean esandakoari loturik, lan auzitegi horrek ez dauka aurreikusita inolako jarduera sustaturik, ez eta etorkizunera begira zenbateko konprometituturik, jada adierazi diren kudeaketa gastuak izan ezik. Hortaz, gastuak lan gatazka puntualak dituen edozein langile edo enpresak auzitegiari esku-hartzeko eskatzen dion gatazketan sortuko dira bakarrik.

2.- BURUTURIKO JARDUERAK.

Txosten hau jaulki den data baino lehen burutu diren jarduerak eta sortu diren zenbatekoak honakoak dira:

– Nafarroako Lan Auzitegira lotu diren gatazken kopurua 1998. urteko ekainaren 10era arte: 615

– Antolatu diren adiskidetze-ekitaldiak: 335

– Adiskidetze-ekitaldiei dagozkien lansarien (bitartekariei egindako ordainketak) ondorioz sortutako zenbatekoak: 16.750.000 pezeta.

– Sinatu diren arbitraje hitzarmenak 1998an: 40

– Epaileen lansariek sortu dutena: 1.450.000 pezeta.

3.- “SUSTATUTAKO JARDUERAK ETA KONPROMETITUTAKO GASTUA”.

Bigarren galderari dagokionean, aurrerkarietan eman dugun azalpenera jo behar dugu, hau da, etorkizunean Nafarroako Lan Auzitegiak jasoko dituen gatazka kopururik ezin da jakin aldez aurretik, ez behintzat 5 laneguneko epe hori baino gehiagorako; hortaz, ezin da aurreikusi ezagutzen ez denak sortuko duen gastuaren zenbatekoa, nahiz eta aurreikuspena eperik txikienerako izan. Horretarako, eta kalkulu modura bakarrik, aipatu organoaren kudeaketarako urteko aurrekontuak baino ezin izan aurreikusi, eta horiek, gure kasu honetan, Foru Parlamentuak onartu ditu: 88.000.000 pezetakoak izan dira, hain zuzen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

---

## “CESen dauden langileen sindikatuetarako, ekonomia sozialeko jardueretarako eta enpresa-erakundeetarako diru-ordainak, hartan parte hartzeagatik” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak “CESen dauden langileen sindikatuetarako, ekonomia sozialeko jardueretarako eta enpresa-erakundeetarako diru-ordainak, hartan parte hartzeagatik” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 31280-4 lerro zenbakiko “Gizarte Kontseilu Ekonomikoan parte hartzen duten langileen sindikatuei, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresarioen elkarteentzako ordaina, hartan parte hartzeagatik” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

Nafarroako Gizarte Kontseilu Ekonomikoa arautzen duen apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legeko 3. artikuluan xedatutakoarekin bat, kontseilu horren eskumenak, batez ere, gizarte, ekonomia eta lanarekin zerikusia duten foru legeen aurreproiektuei buruzko irizpenak ematera bideratzen dira.

Gaurdaino, 1998. urtean zehar, ez da lege aurreproiektu bakar bat ere jarri aipatu kontseiluaren irizpenera; beraz, kontseiluak ez du bilera bakar bat ere egin. Horri loturik, esan behar da, gauden urte honetan zenbat aurkeztuko diren ere ez dakigula; hala ere, jakin badakigu, 1999. urtean, aurrekontueei buruzko foru legearen aurreproiektua kontseiluaren esku jarriko dela.

Egungo egunera arte, ez da konprometitu, ez eta ordaindu ere, inolako zenbatekorik aipatu den kontusailaren (83100-4810-2-3151 “Gizarte Kontseilu Ekonomikoan parte hartzen duten langileen sindikatuei, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresarioen elkarteentzako ordaina, hartan parte hartzeagatik”, 31280-4 lerroa) kargura.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

---

# Energiaren erabilpen eragingarrirako SAVE programak finantzatutako ekimen edo proiektuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak energiaren erabilpen eragingarrirako SAVE programak finantzatutako ekimen edo proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du energiaren erabilpen eragingarrirako SAVE II programak finantzatutako ekimen edo proiektuei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

Lehen galderan, Europako SAVE II programaren helburuekin zerikusia izan eta gure komunitatean aplikagarria den legedi eta araudiaren zerrenda eskatu da; horri dagokionez, kontuan hartu behar da programa horren helburuak hurrengo hauek direla:

a) energi eraginkortasuneko neurriak bultzatzea alor guztietan;

b) kontsumitzaile pribatu eta publikoek eta industriak energia kontserbatzera zuzendutako inbertsioei pizgarriak ematea;

c) azken kontsumoaren energi intentsitatea hobetzeko baldintzak sortzea.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan aplikatzen ari den araudia, gorago aipatutako helburuak lortzeko bidean, honako hau da:

Energiari buruzko neurrien Erregelamendua (3/1982 Foru Dekretua, irailaren 16koa, energiari buruzko neurrien erregelamendua onartzen duena. NAO, 121. zk., 1982-10-08koa).

Erregelamendu horretan garatzen diren neurrien xedea Nafarroako industri alorrean energi aurrezpena eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea da, produktu-unitateko kontsumoak murriztearren eta energi baliabide propioen erabilera areagotzearren.

Goian aipatutakoak beren helburuen artean dituzten inbertsio proiektuak urte hauetan zehar sartzen ari dira.

1996ko martxoaren 13ko Foru Agindua, Industri, Merkataritza eta Turismo Kontseilariarena, urtarrilaren 24ko 27/1986 Foru Dekretuan aurreikusitako interes hobaria lor dezaketen jarduera ekonomikoetarako irizpideak finkatu eta Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazional berrira (CNAE-93) moldatzen dituena.

1986az geroztik laguntza hau jasotzen ari dira guztira 1.000 Kw-ko potentzia instalaturainoko minizentral hidroelektrikoetarako inbertsio proiektuak, eta baita energi dibertsifikazio proiektuak ere. Kasu biotan, 5 puntukoa da hobaria.

* 669/1996 Foru Dekretua, abenduaren 9koa, Inbertsioengatiko Kenkariaren Araubide Berezia aplikatzekoa. Inbertsio horiek dira iturri berriztagarrien energia aprobetxatu eta gas bidezko kogenerazioarekin energia elektrikoa eta termikoa sortzeko instalazioetan egiten direnak. (NAO, 154. zk., 1996-12-20koa).

Neurri horiek guztiak 1996 eta 1997an zehar egon dira indarrean, eta orain onartzeko dago energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetan eta energi aurrezpen eta dibertsifikaziorako egiten diren inbertsioei kenkari araubide berezia aplikatzeko foru dekretu berri bat. Dekretu honen indarraldia 2000 urtera artekoa izanen da.

Araubide berezian jasotako kenkariak eskuratuko dituzten inbertsioek honako helburu hauek beharrezkoak eta ezinbestekoak izan beharko dituzte:

– Energia berriztagarrien aprobetxamendua.

– Energia eta beroa batera sortzea.

– Energi aurrezpen eta dibertsifikazioa.

Bigarren galdera, Nafarroak programa horren bidez finantzatzeko aurkeztu dituen proiektuei buruzkoa da. Horri dagokionez, aditzera eman behar dugu London Borough of Southwark-ek eta Iruñeko Udalak 1997ko maiatzean elkarrekin aurkeztu zutela hiri energia kudeatzeko bi agentzia jartzeko proiektu bat. Alderdi desberdinek 1997ko azaroaren 28an sinatu zuten XVII/4.1031/L/97-039 zenbakiko kontratua.

Iruñeko Energi Agentziak honako helburu hau izanen du:

– Energiaren erabilera razionala sustatzea.

– Toki erakundeei laguntzea energi arloko estrategia diseinatzen.

– Lotura eginkizuna burutzea kontsumitzaileei informazioa igortzeko, haiengan sentsibilitatea sortzeko, objektiboki aholkuak emateko eta laguntza eskaintzeko beren energi proiektuak prestatzeko eta hauen jarraipena egiteko.

Kontratua 40 hilabeterako da, kontratua sinatu zen datatik bertatik kontatzen hasita. Finantzaketari dagokionez, proiektuarentzat iritzitako kostu guztia (zerga guztiak barne) 855.904 ECUkoa da, eta Batzordeak emanen duen dirulaguntzak ez du 350.000 ECUtik gora eginen, hau da, proiektuaren egungo kostuaren % 40,89.

Egindako hirugarren galdera etxebizitza eta eraikinetan, garraioan eta industrian energia modu razionalean erabiltzeko aztertu eta aurkeztutako proiektu kopuruari buruzkoa da, eta Energiaren Dibertsifikazio eta Aurrezpenerako Institutuaren (IDAE) Nazioarteko Harremanetarako Departamentuak eskaini digun informazioaren arabera, Foru Komunitate honetatik ez da inolako proiekturik aurkeztu 1998ko urteko deialdian, ezta aurreko urteetakoetan ere.

Hala ere, SAVE II programan sar daitezkeen jarduketa-arloak, parlamentuko galderaren sarreran azaldutakoak alegia, Nafarroako Parlamentuko Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 1997ko azaroaren 5eko bilkuran onartu zuen Energi Aurrezpenerako Programaren baitan lantzen ari dira.

Eraikinetan energia modu razionalean erabiltzeari dagokionean, Administrazioaren 31 eraikin handitan energi auditoriak egiten ari dira, eta 1998 honetan hainbat energi diagnostiko eginen da egoitza eraikinetan eta zerbitzu alorrekoetan, Iruñeko Energi Agentziaren bidez eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren diru ekarpenez.

Garraioan energia modu razionalean erabiltzeari dagokionez, urte honetan bertan halaber, garraio publikoaren erabilera sustatzeko publizitate kanpaina bat eginen da Iruñeko Energi Agentziaren laguntzaz.

Industri alorrean energia modu razionalean erabiltzeko ekintza zehatz batzuk ari dira zertzen aurten bertan, hala nola industri prozesuetako energi auditoriak, industrietako energi diagnostikoak, eta industrietako energi kudeatzaileei zein Lanbide Heziketako irakasleei zuzendutako prestakuntza programak, energi eraginkortasunaren arloan betiere.

Bide beretik, administrazio tramitazioan da Nafarroan energi aurrezpenerako kanpaina bat egiteko lehiaketa publikoa (NAO, 70. zk., 1998ko

ekainaren 12koa). Kanpaina hau gizarte osora helduko da, eta hainbat xede du, hala nola:

– Informazioa ematea pertsona bakoitzak eta gizarte osoak beharrik izan gabe gastatzen duten energi kopuruei buruz.

– Energi aurrezpenak abantail indibidualak eta sozialak dituela konbentzitzea.

– Ohitura pertsonalen aldaketa bultzatzea, energi kontsumo txikiagoak izateko bidean.

Kanpaina honek hainbat kontzeptu azaldu beharko die herritarrei: aurrezpena garraioan, berokuntzan, argiztapenean, lanean, etxean, hondakinen birziklajea, etxebizitza bioklimatikoen abantailak, etab.

Laugarren galderari heldurik, beren jarduketa-arlo nagusia baliabideen kudeaketa eta planifikazio integratua den azterlan edo proiektuen aurkezpenari dagokionean, eskuarteko dugun programan ez da horrelakorik batere aurkeztu, lehenago ere esan dugun bezalaxe.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Energi Planak hain zuzen baliabideen kudeaketan eta planifikazio integratuan oinarritutako helburu batzuk lortu nahi ditu 2000rako. Helburu hauetako bat energia berriztagarrietako baliabideen gehienezko aprobetxamendua da, ingurunearekiko modu bateragarrian jokatuz inolaz ere, energi mendekotasuna murrizteko, hornidurak segurtatzen laguntzeko, zuzkidura iturriak anizteko eta erregairik kutsatzaileenak ordezkatzeko.

Energia eta beroa batera sortzeari (kogenerazioa) bultzada ematea ere ez da SAVE II programaren esparruaren baitan aurkeztutako proiektuetan jasotzen. Nafarroako Gobernutik, aldiz, sustapen lan hori egiten ari da. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak, 1998ko ekainaren 17an Nafarroako Parlamentuko Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen aurrean agertu zenean argitu zuenez, Nafarroako Energi Planak, kogenerazioaren arloan, planaren beraren indarraldian zehar jarriko diren planta berriek 50 MW-ko potentzia beharko dutela izan ezartzen du.

Orain artean 23,3 MW instalatu dira 10 enpresatan, eta hainbat proiektu berri garapen fasean da une honetan.

Horrek guztiak aukera ematen du aurreikuspenak % 40 areagotzeko, instalatutako 70 MW-ra helduz gutxienez.

Energia eta beroa batera sortzeko planta berrien instalazioa ere sustatzen ari da, lehen adierazi bezala horrelako proiektuetarako laguntzen bidez.

Bosgarren egin den galderari erantzunez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren Industria Sustatzeko Zerbitzua osatzen duten unitate desberdinek programa nazionalei zein komunitarioei buruzko informazioa eskaintzen diete kasuan kasuko programen eduki eta ezaugarriengatik bertan sartzeko aukera izan dezaketen erakunde edo entitateei.

Are gehiago, laguntzak ere badira ikerkuntza eta teknologi garapenerako europar programetan parte hartzeko partzuergoak sortzeko, negoziaziorako eta proposamenak prestatzeko.

Lankidetzaren esparruan, salbuespen gisa, lankideak bilatzeko eta negoziazioko eta akordioak zehazteko gastuak sar daitezke, eta baita ere akordioak gauzatzekoak, eta europar programetan sartutako I+G proiektuen definizio eta bideragarritasun faseen aurkezpena eta garapena prestatzekoak ere.

Energi Planak eta Aurrezpen Programak, Parlamentuko Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onartuak biak, dagoeneko garatzen ari den jarduera multzo zabala jasotzen dute. Aipatutako batzordeak oso informazio zehatza jaso zuen bakoitzaren garapenari buruz, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak joandako ekainaren 17an eginiko aurkezpenean zehar.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

# Ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 3ko 39. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Harremanen bat izan al da zatikapen-enpresekin, beraien funtzionamendua Europako Batasuneko eskakizunei egokitu diezaieten?

Europako Batasunak ez du funtzionamendu-eskakizunik ezarri ibilgailuen zatikapen-enpresetarako.

Dena den, Kontseiluaren zuzentarau-proposamen batek ibilgailuak pilatu eta tratatzeko lekuetarako bete beharreko zenbait eskakizun tekniko ezartzen ditu.

Eskakizun horiek sistematikoki ari dira sartzen neurri zuzentzaile gisa Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egiten dituen zatikapen-jardueren jarduera sailkatuko proiektuei buruzko txostenetan.

Hortaz gain, bada Asociación Española de Normalización y Certificación erakundearen barruan dagoen lan-talde bat horri buruzko arau teknikoa lantzen ari dena, eta arau horretako zuzentarauei jarraitu egiten zaie, arau hori derrigorrez bete beharrekoa ez den arren, eta, hortaz gain, oraindik ofizialki onetsita ere ez dagoen arren.

2.- Ba al da enpresa horien funtzionamenduaren ingurugiro-kontrolik?

Zatikapen-jarduerak Departamentuak kontrolatzen ditu, gainerako jarduera sailkatuak bezala.

3.- Enpresa horiek ba al dute jarduera sailkatuaren aldeko txostena, irekitzeko baimenaren aurretik?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan tramitatutako zatikapen-jarduerei dagozkien jarduera sailkatuko espediente guztiek aldeko txostena jaso dute, eta kasuren batean, enpresak berak proposatutakoez gain, neurri zuzentzaile gehigarriak ezarri dira.

Adierazitako zuzentarau-proposamenak ezartzen dituen eskakizun teknikoetan oinarrituz egiten dira txostenak.

4.- Ba al planik edo neurriak hartzeko konpromisorik aipatu enpresen ikuspegi-eragina gutxitzeko?

Departamentuak tramitatutako espediente bakoitzean alderdi hori baloratu da, bai eta jarduerarekin erlazionatutako beste eraginak ere, eta beharrezkoak ziren neurri zuzentzaileak ezarri dira, hala zegokionean.

Etorkizunean, ibilgailuak birziklatu eta deskontaminatzeko zentroa eraikitzeak (zentro horren bideragarritasun-azterketa gaur egun egiten ari dira Departamentuaren laguntzaz) eragin horiek nabarmen gutxitzea ekarriko du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# Burlatako Lipauto enpresaren inguruan hartutako konpromisoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak Burlatako Lipauto enpresaren inguruan hartutako konpromisoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Burlatako Lipauto enpresa tokiz aldatzearren Burlatako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketaren gaineko zenbait alderdiri buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein urrats eman du Nafarroako Gobernuak Burlatako Udalaren 1997ko abuztuko erabakiari dagokionez?

A) 1996ko azken hiruhilekoan bilera orokor bat egin zen espedientea aurkezteko, nahiz eta espediente hori udal mailan tramitatzen hasi gabe egon. Bilera hartan, arazoa mahaigaineratu zen, egin asmotan zegoen aldaketarako lege baliabideak aztertu ziren eta aipatu udal mailako tramitazioaren aurreko txostenak egiteko erabakia hartu zen.

B) 1996ko abenduaren 24an bi txosten jaulki ziren: lehenak, Departamentuko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuko zuzendariak eginak, aldaketa sistemaz kanpoko jardueratzat jotzeko aukera aztertzen zuen, hau da, exekuzio unitatea ez balitz bezala; ondorioz, aldaketa ez litzateke lotu beharko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako 10/1994 Foru Legeko 20. artikuluan ezartzen diren dentsitate mugaketetara. Horrekin konponbide bat ematen zitzaion bestela oso konponketa zaila izanen zukeen arazoari. Bigarren txostenak, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuko zuzendariak egin zuenak, LIPAUTOko orubean jaso asmotan zegoen eraikinak hartu beharko zuen garaiera aztertzen zuen, eta planteatzen eraikinaren profila gehienez ere B+7 izan zitekeela.

C) 1996ko abenduaren 26an, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak gutun bat igorri zion Burlatako alkateari, Departamentuaren iritziz espedientean sartu behar ziren aldaketak adieraziz.

D) Burlatako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (PGOU) aldatzeko espedientea Udalean tramitatu ondoren, 1997ko abuztuaren 14an sartu zen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erregistroan, behin betiko onespena jaso zezan.

E) Bulatako Udalak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren derrigorrezko txostena bidali zuen 1997ko irailaren 18an, aipatu plan orokorraren dokumentazioaren osagarri bezala.

F) 1997ko irailaren 24an, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak errekerimendua luzatu zion Burlatako Udalari zenbait dokumentazio osagarri aurkez zezan eta bide batez espedientean antzeman ziren hutsegite batzuk jakitera emanez.

G) 1997ko urriaren 10ean jaso zen errekerimendu horri Burlatako Udalak eman zion erantzuna. Horretan, aipatu errekerimenduaren bidezkotasun eta egokitasunaren kontrako iritziak ematen dira, ez ordea eskatutakoari buruzko erantzunik.

H) Burlatako Udalaren erantzun horri, alde batetik, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak ihardetsi zion lehenbiziko errekerimenduaren zatirik handiena berretsiz; beste aldetik, Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuak ere erantzun zion 1997ko urriaren 23an, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuaren jardueraren bidezkotasuna bermatuz.

I) Irizpide ezberdinak zituztenez, kontaktuak eta lan-bilerak egin ziren bi instituzioetako arduradun politiko eta teknikoen artean, baita Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko arduradunekin ere.

J) 1997ko urriaren 27an, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak beste errekerimendu bat luzatu zuen; urte bereko azaroaren 4ko dataz, beste idazki osagarri bat luzatu zuen

zerbitzu berak, aurreko errekerimenduari zenbait zehaztasun gehituz.

K) Kontuan izanik iritzi desberdinak eragiten zituzten gai horietako bat Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren txostenaren interpretazioak sortzen zuena zela, erakunde horri txosten berri bat egin zezan eskatu zitzaion apirilaren 1ean.

L) Eskatutako dokumentazio guztia Departamentuan aurkeztu zen 1998ko maiatzaren 6 arte irekita egon zen epearen barruan, egun horretan osatu baitzen espedientearen dokumentazioa.

M) LIPAUTOko orubean jaso nahi zen eraikinarentzat aurreikusitako altueren justifikazio ekonomikoari buruzko dokumentazioaren garrantzia kontuan izanik, eta ikusirik jarduerak ukitutako bizilagunek Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (PGOU) aldatzeko behin betiko onespen ekitaldiaren kontrako errekurtsoa jartzeko asmoa adierazi zutela eta horretarako honako arrazoia eman zutela, alegia, espedientea jendaurrean jarri zenean aldaketa justifikatzen zuen dokumentazioa ez zegoela espediente horretan sarturik; bada, hori guztia kontuan izanik, txosten bat egin zezan eskatu zitzaion Departamentuko Idazkaritza Teknikoari. Txosten horrek berretsi egin zuen espediente osoa berriro jendeaurrean jarri beharra.

N) Maiatzaren 6an Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak ofizio bat bidali zion Burlatako Udalari, espedientea jada osatuta zegoela jakinaraziz, baina beharrezkoa zela, aurrean aipatu den txostenarekin bat, dokumentazio osoa berriro jendeaurrean jartzea.

O) Ofizio horren ondorioz, maila teknikoko zenbait bilera antolatu ziren, eta horiek amaitu ondoren Idazkaritza Teknikoak berretsi egin zuen aurrean azaldutako iritzia.

P) Planteamendu horren guztiaren aurrean, Burlatako Udalak espedientea berriro jendaurrean jartzea erabaki zuen 1998ko ekainaren 17an Alkatetzak hartutako ebazpenaren bidez.

2. Hartutako konpromisoei aurre egiteko zer nolako urratsak ematea aurreikusten du Nafarroako Gobernuak?

Espedientea berriro jendaurrean jarri ondoren eta Burlatako Udalak jasotako alegazioei buruzko txostena egin ondoren, berriro behin-behinekoz onetsi beharko da espedientea; ondoren, eta aldez aurretik departamentu honetara bidali eta gero, espedientea berriro aztertuko da eta aholkuak emanen dira, bidezko bada behin betiko onespena jaso dezan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

# Altsasuko mugapean Ulaiar errekak duen kutsadurari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Altsasuko mugapean Ulaiar errekak duen kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Altsasuko mugapean Ulaiar errekak duen kutsadurari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer daki Nafarroako Gobernuak aipatutako errekaren kutsadurari buruz?

Maiatzaren 29an egindako ikuskapenean Ulaiar edo Erkuden errekaren 230 m-ko zatia zikin dagoela egiaztatu da; gainera, errekaren egoera hori aregotu egin da errekak ia-ia emaririk ez duelako, izan ere ura ez baitabil etengabe erreka horretan barrena.

2. Zer nolako hondakinak ari dira isurtzen erreka horretara? Ba al da isurketa horiek egin dituenari buruzko informaziorik?

Errekaren kutsatzailea garraio ibilgailuen garbitegi bat da, eta horren jabea Erkuden, S.A.L. enpresa.

SEPRONAk 1998ko otsailaren 24an hartu zituen laginak, eta analisiaren emaitzak adierazten zuenez, kutsadura Comisaría de Aguas del Ebro erakundeak baimentzen duena baino zertxobait goiti zegoen.

Enpresa horrek jarduera sailkaturako baimena du 1994. urtetik.

3. Zer egin behar du edo zer neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak hondakin horiek desagertarazteko, isurketak jazartzeko eta horiek egin dituztenak erantzule egiteko?

Lehendabiziko neurri bezala, arestian aipatu den ikusketa egin zen une berean eskatu zitzaion enpresari errekan utzitako hondakinak garbitzeko eta kentzeko.

Ekainaren 19an hasi ziren garbiketa lanak, eta Departamentuko langileak ari dira lan horien jarraipena egiten.

Horrezaz gain, Departamentuko Idazkaritza Teknikoak espediente zehatzailea ireki dio enpresari, jarduera sailkatuen 16/98 Foru Legean azaltzen diren arau-hausteengatik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## Santa Luzia sakana mendiko bide eta mendibideak konpontzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Santa Luzia sakana mendiko bide eta mendibideak konpontzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Santa Luzia sakana mendiko bideei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Noiz konponduko dira Santa Luzia sakana mendiko bide eta mendibideak?

Aipatu oihan aprobetxamendua amaitu ondoren, aurtengo udan konponduko ditu bide horiek aprobetxamenduaren kontratista hartzaileak; gaur arte ezin izan zaio lan horri ekin, udaberriko eguraldiak ez duelako lagundu eta ondorioz mendibideak oso egoera txarrean zeudelako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

# Arakil ibaian arrainak hilik agertzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Arakil ibaian arrainak hilik agertzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Arakil ibaian arrainak hilik agertzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Hilik aurkitu diren arrainak laborategira bidali direlarik, zein izan da Arakil ibaiaren aipatutako zatian arrainak hilik agertzearen zergatia? Gertaera puntuala ala ohikoa da? Isuri hori puntuala eta toki jakin batean emandakoa izanen al zen?

Hilik aurkitu diren arrainei nekropsiak egin zaizkielarik, ez da arrainak hilik agertzeko berariazko sintomatologiarik atzeman. Berebat, Zaragozako Albaitaritza Fakultateko iktiopatologia laborategian egin diren bakterio eta birus analisiek emaitza negatiboak eman dituzte.

Arrainen hilketa noizbehinka gertatzen diren horietakotzat jo da.

2. Kalte ekologikoa garrantzitsutzat jo daitekeela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zein datuk oinarritzen du galdera horren erantzuna?

Gertaera honen ondorio ekologikoak ez dira garrantzitsuak, hildako ziprinido, barbo eta loinen artean guztira 27 ale baino ez baitira izan, Egillor eta Izkue bitartean aztertutako 7 K.m.ko zatian, eta gainera guztiak Lizasoain errekaren bokalean aurkitu dira. Kopuru hori ezdeus da, batez ere zein urtarotan -ugalketa sasoia hain zuzen ere- izan den kontuan izanda. Egia da, ordea, karramarroen azal edo oskol ugari aurkitu zirela eta karramarro ale azalberritu horiek bizitasun gutxi zutela; normala bestalde, egoera horretan hala gertatzea. Gertakizun horrek, agian, asaldatu egin zuen aditua ez den norbait.

3. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horrelakorik edo antzekorik gertatu den Arakil ibaian? Zeintzuk izan dira, noiz gertatu dira eta zerk eragin zituen?

Ez, azken urteotan ez dugu antzeko gertaeren berririk izan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# Arakil ibaian arrain hiltzearen zergatiari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Arakil ibaian arrain hiltzearen zergatiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Arakil ibaian arrain hiltzearen zergatiari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zergatik hil dira arrain horiek Arakil ibaian?

Hilik aurkitu diren arrainei egindako analisietatik ezin da ondorioztatu hilketa horren arrazoi garbirik. Izatez, ziprinidoei egindako nekropsiek ez dute berariazko sintomatologiarik atzeman eta bakterio eta birus azterketek ondorio negatiboak eman dituzte.

Bestalde, gertaera hain txikia izateak ere –hilik aurkitutako ziprinido, barbo eta loinen artean guztira 27 ale izan dira bakarrik eta ia-ia karramarro bat ere ez da aurkitu hilik ikuskatu den 7 km-ko zatian- ez du askorik laguntzen benetako arrazoiak bilatzeko.

2. Zer ingurugiro-zainketa neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak ekiditeko?

Ingurugiroko Zaindari Taldeari dagokio ibaien zainketa, eta horrek Foruzaingoaren Babes Ekologikoaren Atalarekin, Goardia Zibilen Natura Babesteko Zerbitzuarekin eta Ebroko Ur Konfederazioko erakundearen zaintza zerbitzuarekin koordinaturik lan egiten du. Aurrean zehaztu diren gertaera horien garrantziak ez du neurri berririk hartzeko betarik ematen.

3. Jarriko al ditu Nafarroako Gobernuak behar diren bitarteko guztiak arau-hausleak atzemateko? eta arau-hauslea nor den jakinez gero, eta benetan errudun bada, zer hertsa-neurri aplikatuko zaizkio?

Gertaeren berri izan bezain laster ekin zitzaion horiek ikertzeari eragilea aurkitzearren, baina ez zen neurri zuzentzaileak ezartzeko moduko emaitzarik ortu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Hirigintza-planeamendurako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak “Hirigintza-planeamendurako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak galdera egin du aurtengo aurrekontuko ”Hirigintza-planeamendurako dirulaguntza” 90003-0 kontusailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Kontusail horren bidez ordaintzen dira orain dela urte batzuetatik hona jite orokorreko hirigintza planeamenduak idazteko ematen diren dirulaguntzak, hau da, gaur egun “Udal Planak” izenez ezagutzen direnak. Dirulaguntza horiek 2 edo 3 urtetan behin egiten diren deialdi publikoen bidez banatzen dira. Gaur egun bi dirulaguntza bide daude zabalik: bata, abenduaren 18ko 593/1995 Foru Dekretuaren bidez (urtarrilaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 5. alean argitaratua) onetsi zena, eta bestea, Nafarroako Gobernuaren 1997ko otsailaren 24ko erabakiaren bidez (martxoaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 32. alean argitaratua) onetsi zena. Dirulaguntzak jasotzen dituzten udalek eskaerak egin ahala ordaintzen dira dirulaguntza horiek; eskaera horiek urtearen hondarretan egin ohi dira.

Eskatutako argibideak kokatzeko aurreko azalpenak eman ondoren, honakoa adierazi behar da:

1. Burutu diren jarduerak eta ordaindu diren zenbatekoak.

Gaurdaino 4.792.00 pezeta ordaindu dira 593/1995 Foru Dekretuaren ariora emandako dirulaguntzetan eta 5.600.000 pezeta 1997ko otsailaren 24ko erabakiak ezarritakoaren ariora emandakoetan. Zehazki, aurreneko dirulaguntzak Antsoain eta Jaurrieta herrietara joan dira, eta bigarrenak Noain-Elortzibarrera.

2. 1998ko Aurrekontuaren arabera sustatutako jarduera eta hitzartutako zenbatekoak.

Lehendabizi adierazi behar da oso denbora gutxi barru dirulaguntzak emateko beste deialdi bat egitea aurreikusi dela, baina horretatik ez da espero 1998. urteari egozteko inolako gasturik.

Hori alde batera utzita, aipatu behar da aurten hitzartu den gastuak ondoko zenbatekoak hartzen dituela dirulaguntza talde bakoitzaren arabera:

* 593/1995 Foru Dekretua: 76.960.000 pezeta.

* 1997-02-24ko erabakia: 35.760.000 pezeta.

Beraz, guztira 112.720.000 pezeta dira; zenbateko horretan sartu dira jada eginda dauden ordainketak.

Bestalde, 1997aren amaiera aldean, bertan behera utzi ziren hitzartutako 19.958.000 pezeta, eskatuko ez diren dirulaguntzei zegozkienak, zeren, toki entitateei galdetu ondotik, garbi baitzegoen ez zituztela eskatu ere eginen. Horrela, onartu egin ahalko ziren horien aurreko deialdietan epez kanpo aurkeztutako eskaera batzuk. Baliteke horietako batzuei 1998ko aurrekontuekin erantzun behar izatea, eta horrela eskaeren kopurua teorikoki 132.678.000 pezetakoa izanen litzateke, hau da, aurtengo onetsi den aurrekontuak ematen duen ahalmenaren gainetik.

Gainditze hori, alabaina, ez da kezkagarria, batez ere kontuan izanik ia-ia seguru dela diruz lagundutako planak tramitatzean atzerapenak emanen direla, eta horren ondorioz udal batzuek ezin izanen dutela dirulaguntzarik eskatu ekitaldi honen kargura. Hala ez balitz –eta horrela gertatzea ia-ia ezinezkoa da-, planen bat edo beste 1999ko kredituen bidez ordaindu beharko litzateke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Ingurugiro-hezkuntzarako dirulaguntza eta programak eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak “Ingurugiro-hezkuntzarako dirulaguntza eta programak eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ingurugiro-hezkuntzarako dirulaguntzei eta programak eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Aipatu kontusailaren zenbatekoa ez da 251 milioi pezetakoa, 25 milioikoa baizik.

Otsailaren 26ko 193/98 Foru Aginduaren bidez onetsi zen ingurugiroaz sentsibilizatu eta hezitzeko 1998. urtean eskolaz kanpo egiten diren jardueretarako dirulaguntzak emateko deialdia. Deialdi hori martxoaren 20ko 34. Nafarroako Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen. Deialdi horretarako baimendu zen gastu orokorra 25 milioi pezetakoa izan zen.

Eskaerak jasotzeko emandako epea agorturik, eta Departamentuan jaso ziren eskaeren kopurua handia zela ikusirik, maiatzaren 11ko 440/1998 Foru Aginduaren bidez aurreko Foru Aginduaren bidez onetsitako aurrekontua 3.644.532 pezetatan handitzeko baimena eman zen, baita erantzun honekin batera datozen 1. eta 2. eranskinetako dirulaguntzak banatu ere.

Gaurdaino, onetsitako dirulaguntzen % 50 ordaindu du jada Departamentuak. Gainontzeko % 50 aurtengo abenduaren 31 baino lehenago ordainduko da, betiere onetsitako dirulaguntzen egiaztagiriak aurkeztuz gero.

Zenbait erakunde eskatzailek (batez ere Udalek) deialdia ebatzi baino lehen garatu dituzte diruz lagundutako jarduera batzuk. Hala ere, diruz lagundutako jarduera gehienak aurtengo maiatza eta abendua bitarte garatuko dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

# “Zentral txikientzako kalte-ordainak, ur-emari ekologiketara egokitu daitezen” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak “Zentral txikientzako kalte-ordainak, ur-emari ekologiketara egokitu daitezen” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Zentral txikientzako kalte-ordainak, ur-emari ekologikoetara egokitu daitezen” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Nafarroako Gobernuak lau hitzarmen dauzka sinatuta beste horrenbeste erakunderekin, ur-emari ekologikoak mantentzeko 13 zentral txikitan. Hona funtzionatzen dihardute zentral txiki horien zerrenda:

| Entitatea | Ibaia | Zentral txikia |
|---|---|---|
| EHN | Irati | Betolegi |
| EHN | Irati | Olaldea I |
| EHN | Irati | Irati |
| EHN | Bidasoa | Nabasturen |
| Iberdrola | Bidasoa | Enda<rlatza |
| Iberdrola | Bidasoa | Bera |
| Iberdrola | Bidasoa | Igantziko Bentak I eta II |
| Iberdrola | Bidasoa | San Tiburtzio |
| Iberdrola | Bidasoa | Oronoz |
| Iberdrola | Artesiaga | Artesiaga |
| Iberdrola | Urederra | San Fausto |
| Fundiciones de Vera | Eska | Fundiciones de Vera |
| Urzainkiko Udala | Eska | Urzainkiko Udalarena |

Hitzarmenak urte baterako egin dira baina luzatzekoak dira. Hitzarmen horien bidez kalte-ordainak ematen zaizkie aipatu erakundeei. Ur-emari ekologikoak mantendu beharrez, ez da ur-emaririk desbideratzen zentral txiki horietako turbinetara eta ondorioz horiek ez dute elektrizitaterik produzitzen; hortik sortzen dira kalte-ordainak. Urte hidraulikoa amaitzean, urrian alegia, erabakitzen dira kalte-ordain horien zenbatekoak. Kalte-ordain horiek kalkulatzeko urte hidrauliko bakoitzean izan diren ur-emariak, ur konfederazioek luzatutako datu foronomiko egiaztatuak eta Industria eta Energia Ministerioak onetsitako indarrean dauden tarifek agintzen duten Kilowatt/ordu bakoitzaren prezioa izaten dira kontuan.

Azken hiru ekitaldietan ordaindutako zenbatekoak 73,3; 74,1 eta 69,7 milioi pezeta izan dira, hurrenez hurren, kontusailaren ehuneko 99,99; 100,00 eta 95,50. Aurtengo ekitaldiari dagokionean, kontusail osoa beteko dela aurreikusten da, hau da, 73 milioi pezeta eta ez 731 milioi pezeta, galderan esaten den bezala.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# "Orkoien-Cordovilla linea aldatzea" kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak "Orkoien-Cordovilla linea aldatzea" kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Orkoien-Cordovilla linea aldatzea" kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

1997ko uztailaren 1ean lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Red Eléctrica de España, S.A.k Cordovilla-Orkoien I linea kentzeko. 220 kVko linea horrek biztanledentsitate handiko zona bat zeharkatzen du, Iruña eta Barañain alegia, eta hiri horretako batean hiribide nagusi bat ere bai. Linea horrek, jakina, Iruñerri osoko beste leku batzuetako garapen urbanistikoa eta bestelako jarduerena eragozten ditu.

Bada, linea hori kentzeak eta zerbitzua beste bide batetik mantentzeak 268 milioi pezetako gastua eragiten du. Gastu hori lankidetza hitzarmena sinatzean konprometitu zen, eta horretatik 75 milioi ordainduko dira 1997ko ekitaldiaren kargura; beste 113 milioi 1998ko aurrekontuaren kargura ordainduko dira eta azken 80 milioiak, 1999ko aurrekontuaren kargura, aurreikusita dagoen bezala.

Oraindik ez da ekitaldi honi dagokion obra ziurtapenik jaso, baina obra izatez oso aurreratua dago; hortaz, espero da konprometitutako gastuak aurreikusita dauden bezala beteko direla.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

# "Kutsadurari aurrea hartzea eta zuzentzea" kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak "Kutsadurari aurrea hartzea eta zuzentzea" kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Kutsadurari aurrea hartzea eta zuzentzea” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Honakoak dira gaur arte burutu diren jarduerak:

a) Industri kutsadurari aurrea hartzeko, eta hori zuzentzeko eta kontrolatzeko neurriak martxan jartzeko egin behar diren inbertsioen dirulaguntzetarako deialdia. Iragan maiatzaren 31n amaitu zen eskaerak aurkezteko epea, eta une honetan deialdiaren ondorioz jaso diren 53 eskaerak ebazten ari gara. Horrezaz gain, badira hitzartutako beste zenbateko batzuk, aurreko ekitaldietako 10 proiekturi dagozkienak.

b) Abeltzaintza ustiategiek eragindako kutsadura murrizteko edo ekiditeko neurriak hartzeko inbertsioentzako dirulaguntzak emateko deialdia. Kasu honetan ere 8 eskaera dauzkagu eskuartean, laster batean ebazteko moduan.

c) Asociación de Taxis San Fermín-ekin egin den hitzarmena, bertako kideek beren ibilgailuetan GLP erregaia erabiltzeko, oso gutxi kutsatzen baitu erregai horrek.

d) Berako udalerrian hidrokarburoz kutsatutako lurzorua saneatzeko kontratua. FUNVERA enpresaren esku utzi da subsidiarioki kontratu horren betearazpena, presa arrazoiak tarteko. Obra hori lizitazio fasean dago.

e) ANECOP-Asociación de Contratistas de Obras Públicas-ekin egindako hitzarmena, narriatutako inguruneak eraikin eraitsien hondakinekin eta erauzketa lurrekin leheneratzeko. Proiektu hori “FEDER Objetivo 2” programarekin kofinantzatu da.

Honakoak dira jarduera horiei dagozkien zenbatekoak:

| | |
|---|---|
| Hasierako aurrekontua: | 164.000.000 |
| Kreditu gehiketak: | 65.462.237 |
| Aurrekontu finkatua: | 229.462.237 |
| Kreditu baimendua: | 210.341.911 |
| Kreditu hitzartua: | 80.341.911 |
| Kreditu ordainduak: | 4.404.414 |

Eta honakoa horien banaketa:

| Kontzeptua | baimendua | hitzartua | ordaindua |
|---|---|---|---|
| a (1998) | 90.000.000 | 0 | 0 |
| a (1997) | 22.479.596 | 22.479.596 | 4.404.413 |
| b | 30.000.000 | 0 | 0 |
| c | 2.000.000 | 0 | 0 |
| d | 15.000.000 | 0 | 0 |
| e | 50.862.315 | 50.862.315 | 0 |

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# “Naturguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak “Naturguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Naturguneak zaintzea eta habitata hobetzea” kontusailari buruz (11590-1 lerroa). Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Gaur arte, honako jarduerak bete dira: zenbait lekutan zaborrak jasotzea: 13.920 pezeta; zikoinahabiak konpontzea: 80.891 pezeta; Urbasako Eltxoen iturria konpontzea: 195.576 pezeta; Urbasa eta Andiako zainketa eta garbiketa: 8.073.607 pezeta; Montejurrako Mankomunitatearekin egindako hitzarmena Urbasa eta Andiako zaborrak jasotzeko: 1.568.343 pezeta; monumentu deklaratutako zuhaitzen mantenimendua: 877.238 pezeta; Pitillasko aintzirako Bisitariak Hartzeko Zentrorako materialak diseinatzea eta maketatzea: 717.460 pezeta.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Aurreko erantzunean eman diren zehaztasunez gain, 55.760.311 pezetako gastua onesteko espedienteak ireki dira: Bertizko jaurerriaren mantenimendu lanak kontratatzeko, 18.735.208 pezeta; Pitillaserako, 9.814.716 pezeta; Las Cañaserako, 1.674.903 pezeta; Pulgerrerako, 1.744.802 pezeta; Agua Saladarako 92.382 pezeta; Soto de la Remontarako 402.706 pezeta; Gil y Ramal Hondorako 1.135.793 pezeta; Irunberrirako, 512.952 pezeta; Dos Reinos-Figarolerako, 2.291.459 pezeta; Leurtzarako, 1.330.868 pezeta; Carrascalerako, 7.982.146 pezeta; Radarako 1.951.004 pezeta; Iraiti ibairako, 1.875.720 pezeta; Xabierko gaztelurako, 1.198.674 pezeta; Sologorri-Bakedanorako, 5.016.977 pezeta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## “Naturaren interpretazio-zentroak. FEOGA, 5b” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak “Naturaren interpretazio-zentroak. FEOGA, 5b” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Naturaren interpretazio-zentroak. FEOGA, 5b” kontusailari buruz (93008-7). Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Gaurdaino, Pitilasko aintzirako Bisitariak Hartzeko Zentroan (367.976 pezeta) eta Las Cañasen (75.000 pezeta) bete dira jarduerak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Gaurdaino, 50.510.375 pezetako gastua baimendu da Irunberrin Naturaren interpretazio-zentroa eraikitzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## “Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk) eta ibaiak bereoneratzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak “Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk) eta ibaiak bereoneratzea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk) eta ibaiak bereoneratzea” kontusailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Honako hiru atal nagusi hauek barnebiltzen ditu kontusail honek:

A.- Naturguneak babesteko hitzarmenak.

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Hona 1998ko ekainaren 3 arte naturguneak babesteko sinatu diren hitzarmenak:

– Urbasa eta Andia mendietako parke naturalean eta Urederraren iturburuko natur erreserban sortzen diren hondakin solidoak biltzeko, eramateko eta tratatzeko Montejurrako Mankomunitatearekin 1997an sinatu zen lankidetza hitzarmena luzatzea. Kostua: 2.538.036 pezeta.

– Orgiko aisialdiko eremu naturalean erabilera publikoa egokitzeko eta antolatzeko Lizasoko Kontzejuarekin egindako lankidetza hitzarmena. Kostua: 11.870.000 pezeta. Urte osoan zehar egokitzapen, mantenimendu eta monitorizazio obrak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

1998. urtean ekiteko aurreikusi diren gastuak:

– Aralar: 5.446.700 pezeta. Zaintza, garbikuntza eta mantenimendua udako hilabeteetan, eta urte osoan zehar hondakin solidoak jasotzea.

– Irunberri, Arbaiun arroiletako natur erreserbak eta Ugarróngo arroileko lekune naturala: 3.667.140 pezeta. Irunberri Arbaiun eta Ugarróngo arroilak zaintzea eta garbitzea udan, hala nola horietan eta beren inguruetan sortzen diren hondakin solidoak jasotzea, eramatea eta tratatzea.

– Irati (Zaraitzu ibarreko Batzarrea): 4.400.496 pezeta. Zaraitzu ibarreko Batzarreari dagokion Iratiko zona zaintzea eta horko zaborrak biltzea udan.

– Benasako arroileko natur erreserba: 314.156 pezeta. Arroila eta inguruak zaintzea eta garbitzea uztail eta abuztuan.

– Las Cañaseko natur erreserba (Vianako Udala): 2.045.122 pezeta. Las Cuevaseko eskortara eta Bordoneko behategira urak eramateko obrak.

– Pitillasko aintzirako natur erreserba: 1.475.000 pezeta. Hegazti behategiaren eta gainontzeko natur erreserbaren erabilera publikoa urria-abendu bitartean kudeatzeko Udalarekin egindako hitzarmena.

– Leurtzako urtegietako aisialdiko eremu naturala: 1.825.000 pezeta. Urrotzetik igotzeko mendibidea egokitzea eta udan naturgunea zaintzea eta garbitzea.

– Narbarteko atsedengunea egokitzea, Bertizko parke naturala arintzeko asmoz: 6.570.002 pezeta.

B.- Ibaiak bereoneratzeko hitzarmenak.

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Ibaiak bereoneratzeko hitzarmenak egiteko 31200-7600-5331 kontusailetik -Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk) eta ibaiak bereoneratzea-, 11730-0 aurrekontu lerroa, 40.000.000 pezeta esleitu dira.

Honakoak izan dira ibaiak bereoneratzeko 1998ko ekainaren 8 arte egin diren hitzarmenak:

– Ubagua ibai bazterrak bereoneratzea, Riezuko Kontzejuan; aurrekontua 3.206.832 pezeta eta aipatu kontusailaren kargura luzatutako dirulaguntza, 2.886.149 pezeta.

– Urederra ibaiaren uholdeei aurrea hartzea, Larrion Kontzejuan, 7.707.067 pezetako aurrekontua eta aipatu kontusailaren kargura luzatutako dirulaguntza, 6.936.360; dirutza horretatik 2.484.776 pezeta gelditzen diren ordaindu gabe.

– Sadar ibaia egokitzea Mutiloabeitin, Aranguren ibarreko Udalarekin lankidetzan; aurrekontua 7.529.610 pezeta, eta luzatutako dirulaguntza, 5.647.208 pezeta.

– Urrobi ibaiaren bazterrak bereoneratzea Auritzeko Udalarekin lankidetzan; aurrekontua 5.033.705 pezea eta dirulaguntza 4.530.345 pezeta.

Obra horien guztien betetze maila nahiko aurreraturik dago eta gainera laster bukatzekotan daude. Aurrean aipatu den kontusailaren kargura konprometitu dena guztira, 16.115.968 pezeta.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Aurreko ekitaldian egindako deialdiaren ondorioz 1998ko ekainaren 8ra bitarte jaso diren eskaerak ondokoak dira:

– Orbaitzeta: Irati ibaiaren ertzak bereoneratzea Aezkoan; 10.461.517 pezetako aurrekontua.

– Otsagabia: Zatoia eta Campa ibaiak bereoneratzea; 5.106.631 pezetako aurrekontua.

– Orozt-Betelu: Irati ibaia txukuntzea eta dragatzea; 485.200 pezetakoa aurrekontua.

– Cintruenigo: Alhama ibaiaren ertzak bereoneratzea; 9.442.338 pezetako aurrekontua.

– Ustaize: Ustaizeko sakana bereoneratzea; 6.071.229 pezetako aurrekontua.

– Mirafuentes: Odron eta Nabal ibaien ertzak bereoneratzea; 2.534.935 pezetako aurrekontua.

– Zangoza: Aragoi ibaiaren bazterrak bereoneratzea; 12.828.375 pezeta.

– Garralda: errekak bideratzea; 67.603.670 pezetako aurrekontua.

– Mañeru: Yesera eta Moreako sakana bereoneratzea; 8.015.104 pezetako aurrekontua.

– Lerin: ezpondak egokitzea eta birlandatzea; 12.102.559 pezetako aurrekontua.

Eskaera horietatik guztietatik presa handiena dutenak aukeratuko dira.

C.- Ezkaba mendia egokitu eta aisialdiko eremu natural deklaratzeko hitzarmena.

Ezkaba mendirako aurreikusi diren bereoneratze, egokitze eta landatze jardueren aurrekontua 12 milioi pezeta ingurukoa da.

Horrezaz gain, Mendien Ataleko beste aurrekontu lerro batzuetan ere aurreikusita dago zenbait baso-landaketa egitea, iraganean izandako suteen ondoriozko kalteak berreskuratzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## “Oihan Planari dirulaguntzak eta plan horri buruzko jarduketak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak “Oihan Planari dirulaguntzak eta plan horri buruzko jarduketak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Ángel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentaro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Oihan Planari dirulaguntzak eta plan horri buruzko jarduketak” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

– 1998ko aurrekontuko 11731-9 lerroak, “Oihan Planari dirulaguntzak eta plan horri buruzko jarduketak” kontusailari dagokionak, 926.000.000 pezetako aurrekontu zuzkidura du. Dirutza horretatik 1998ko ekainaren 26 arte 853.440.363 pezeta konprometitu dira (aurrekontuaren %92) eta ordaindu, aldiz, 14.941.764 pezeta.

– Ondoren doa aurreikusi, konprometitu eta ziurtatutako jardueren zerrenda.

– Honakoa da edukia:

* Herri-basoetako 5 baso-berritze amaitu dira; baso-berritze horiek 1997. urtean zehar hasitakoak dira.

* Herri-basoetako bi baso-berritze hasi dira,

* Aurreko urteetan egindako landaketen mantenimendurako garbiketa lanak.

* Aurreko urteetako baso-berritzetan huts egindako landaketak birlandatzea.

* Tokiko erakundeei eta Udalei emandako diru-

laguntzak, nork bere mendietan landaketa jarduerak burutzeko (eskualdeka datoz).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

11731-9 LERROKO JARDUKETAK. 1998-06-26

| JARDUKETAREN IZENA | AURREKONTU HITZARTUA | ZENBATEKO ZIURTATUAK |
|---|---|---|
| BASO-BERRITZEA URRAULBEITIN | 16.705.854 | 0 |
| BASO-BERRITZEA BAZTANEN (ORMAITEKO) | 18.418.504 | 0 |
| BASO-BERRITZEA ERATSUNEN, 2. FASEA (ZUMARRESTA) | 3.939.503 | 3.609.455 |
| BASO-BERRITZEA NAZARREN (EL QUEMADO) | 2.509.965 | 0 |
| BASO-BERRITZEA LERANOTZEN | 1.598.560 | 0 |
| BASO-BERRITZEA ALTSASUN (EGUBERA) | 10.349.733 | 0 |
| BASO-BERRITZEA GOIZUETAN (KANALAZPI) | 10.972.895 | 0 |
| BASO-BERRITZETAKO GARBIKETAK | 101.190.081 | 0 |
| BASO-BERRITZETAKO HUTSAK BIRLANDATZEA | 10.986.678 | 11.332.309 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (ERDIALDEA 1) | 100.998.801 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (ERDIALDEA 2) | 8.905.571 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (ERRIBERA 1) | 36.754.600 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (ERRIBERA 2) | 40.740.771 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (KANTAURIALDEA 1) | 3.950.418 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (KANTAURIALDEA 2) | 35.632.560 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (KANTAURIALDEA 3) | 25.795.322 | 0 |
| SUBVENCIONES A TRABAJOS FORESTALES (KANTAURIALDEA4) | 43.643.045 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (PIRINIO EKIAL. 1) | 170.102.417 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (PIRINIO MEND.) | 89.454.031 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (KANTAURIALDEA S. 1) | 27.785.950 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (KANTAURIALDEA S. 2) | 20.943.826 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (IRU—A 1) | 5.899.281 | 0 |
| LANDAKETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK (IRUÑA 2) | 66.161.997 | 0 |
| GUZTIRA | 853.440.363 | 14.941.764 |

# “Kooperatiba araubideko makineria eta produkzio-bideetarako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Kooperatiba araubideko makineria eta produkzio-bideetarako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 105 milioi pezetako "Kooperatiba araubideko makineria eta produkzio-bideetako dirulaguntza" kontusailari buruz (27080-0 lerroa). Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

| Espediente zenbakia | Hartzailea | Inbertsioa (Pta) | Dirulaguntza (Pta) |
|---|---|---|---|
| M-15/97 | A.N. S. COOP. | 14.646.265 | 5.126.192 |
| M-16/97 | A.N. S. COOP. | 12.252.706 | 4.288.447 |
| M-20/97 | CUMA BUSMA | 4.812.000 | 1.684.200 |
| M-22/97 | CUMA. MOREGUI | 9.865.000 | 3.452.750 |
| M-24/97 | CUMA GARBI | 3.720.905 | 1.302.316 |
| M-3/98 | José María Arizcuren Unzué | 740.000 | picador 222.000 |
| M-6/98 | CUMA. IZOLA | 740.000 | picador 444.000 |
| M-7/98 | Javier Miguel Sánchez Otazu | 745.000 | picador 223.500 |
| | | GUZTIRA | 16.743.405 |

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

ALDEKO EBAZPENA DUTEN ESPEDIENTEAK

| Espediente zenbakia | Hartzailea | Inbertsioa (Pta) | Dirulaguntza (Pta) |
|---|---|---|---|
| M-35/96 | CUMA IZOLA | 8.250.000 | 2.887.500 |
| M-23/97 | COOP. LERIN | 9.999.155 | 3.499.704 |
| M-25/97 | CUMA. CEVI | 1.337.374 | 468.081 |
| M-27/97 | CUMA. GAM | 10.638.792 | 3.973.577 |
| M-28/97 | CUMA. SANZUSTA | 6.896.552 | 2.470.893 |
| M-1/98 | CUMA. MALAIN | 4.867.000 | 1.703.450 |
| M-2/98 | Domingo Resano Osés | 572.000 | 171.600 (picador) |
| M-5/98 | CUMA. VIÑAS DE OLITE | 700.000 | 245.000 |
| | | GUZTIRA | 15.419.805 |

KONTU HARTZAILETZAN DAUDEN ESPEDIENTEAK

| Espediente zenbakia | Hartzailea | Inbertsioa (Pta) | Dirulaguntza (Pta) |
|---|---|---|---|
| M-10/98 | COOP. OTEIZA DE LA SOLANA | 530.000 | 185.500 |
| M-15/98 | SAT. LOPERENA | 1.300.000 | 780.000 (picador) |
| M-16/98 | SAT. LOPERENA | 1.077.586 | 646.551 (picador) |
| M-17/98 | CUMA. BUSTINZA | 16.379.310 | 5.732.758 |
| M-18/98 | Enrique Zuza | 637.000 | 191.100 (picador) |
| M-33/96 | CUMA. IZIA | 5.378.000 | 1.882.300 |
| | | GUZTIRA | 9.418.209 |

INFORMATU ETA EBATZI BEHARREKO ESPEDIENTEAK

| Espediente zenbakia | Hartzailea | Inbertsioa (Pta) | Dirulaguntza (Pta) |
|---|---|---|---|
| M-1/97 | CUMA RAPUN | 9.856.000 | 3.699.600 |
| M-29/97 | CUMA VIRGEN DEL YUGO | 3.219.412 | 1.376.794 |
| M-4/98 | Pedro J. Garrido | 975.000 | 292.500 (picador) |
| M-8/98 | COOP. PUENTE LA REINA | 14.085.000 | 4.929.750 |
| M-9/98 | COOP. FALCES Aurrekonturik gabe. Eskaera soilik | | |
| M-11/98 | CUMA JARAMICA | 1.205.000 | 421.750 |
| M-12/98 | CUMA. CEVI | 8.045.369 | 2.815.879 |
| M-13/98 | CUMA GOMAR | 1.500.000 | 525.000 |
| M-14/98 | COOP. LERIN | 9.162.414 | 3.206.845 |
| M-19/98 | COOP. FUNES | 10.828.967 | 3.790.138 |
| M-20/98 | COOP. MENDIGORRIA | 13.437.187 | 4.703.015 |
| M-21/98 | CUMA LANDATXETA | 3.967.500 | 1.388.625 |
| M-22/98 | COOP. MIRANDA DE ARGA | 7.691.724 | 2.692.103 |
| M-23/98 | CUMA. LUJOSA | 8.858.200 | 3.100.370 |
| M-24/98 | José Ignacio Bacaicoa | 1.018.500 | 305.550 |
| M-25/98 | CUMA HORTÍCOLA FUSTIÑANA | 1.600.000 | 560.000 |
| M-26/98 | COOP. LARRAGA | 1.074.414 | 366.595 |
| M-27/98 | Fco. Javier Iribarren Sagués | 525.000 | 157.500 |
| | | GUZTIRA | 34.332.014 |

*LABURPENA:*

| | |
|---|---|
| ESPEDIENTEAK, GUZTIRA: 40 | |
| 8 espediente ordaintzeko aginduarekin .................................................. | 16743405 Pta. |
| 8 espediente aldeko ebazpenarekin ........................................................ | 15419805 Pta. |
| 6 espediente kontu hartzailetzan ............................................................ | 9418209 Pta. |
| 18 espediente informatu eta ebazteko ..................................................... | 34332014 Pta. |
| GUZTIRA .................................................................................................. | 75913433 Pta. |

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184 Artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# “Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 10.100.000 pezetako "Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA" kontusailari buruz (27230-6 lerroa). Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Nafarroako Pirinioko Abereen Abeltzain-Elkarteak (ASPINA), ondoko zereginak betetzen ditu:

a) Pirinioko Ganaduaren Liburu Genealogikoaren kudeaketa. Elkarteko abeltzainen abere guztiei buruzko ugaltze-datuak idatziz hartu eta kontrolatzen dira; horri esker, aipaturiko abereen genealogia ezagutu daiteke.

b) Emaitzen kontrola. Elkarteko kideen ustiategietako abere-produkzioak kontrolatzen dira. Produkzio horiek, abereen genealogiari lotuta daudenez, beraien herentziaren berri jakiteko aukera ematen dute; horrela, produkzio-mailarik handienak lortzera bidera daiteke produkzioa, ahalik eta kosturik txikienaz.

c) Pirinioko behi-aziendaren hobekuntza genetikoari loturiko beste jarduera batzuk: testatzea Sabaizan (73 abere testaturik 1997an), txekorren aurrerakoen hazkuntza Orondritzen (34 txekor), aitatasun-frogak, abere-txapelketetan partehartzea -Enkante Nazionala Arkauten (Araba), SIA (Paris), Enkante Nazionala Jacako Puente la Reinan (Huesca), Gernikako Txapelketa (Bizkaia), Tafallako Feria-, lehiaketak antolatzea (Garaioako Txapelketa eta Enkante Nazionala).

ASPINAk idazkari tekniko bat, administrari bat eta bi arlo-kontrolatzaile ditu. Azken hauek arlokontrolak egiten dituzte hobekuntza genetikoaren egitarauak eskatzen duen aldizkakotasunaren arabera. Datu horiek informatika-programa batean sartu eta Pirinioko Ganaduaren Konfederazio Nazionalari (CONASPI) lotzen dira nazio-mailan; horri esker, ugalketa planifika daiteke ustiategietan.

Pirinioko aziendako 709 ustiategi daude Nafarroan, eta horietatik 423 ASPINAko kideak dira. Pirinioko behiak Nafarroan 12.075 dira guztira, eta horietatik 3.621 emaitzen kontrol-egitarauaren barruan sartuta daude. Espainian pirinioko arrazako 23.171 behi daude, 894 ustiategitan.

ASPINAri ematen zaion aurrekontu-laguntzari esker, Elkartea aurrera doa eta zerrendaturiko jarduerak egiteko aukera ematen zaio.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

1998an, aurreko galderari emandako erantzunean zerrendatu diren ekimenak burutu ditu ASPINAk; ekimenok diruz laguntzeko, baimendu egin da kontusailean aurreikusitako gastua.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. Artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# "Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza" kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak "Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza" kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin 23.300.000 pezetako "Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza" kontusailari buruz (27240-3 lerroa). Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.Bururturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Nafarroako Frisiar Abereen Abeltzain-Elkarteak, 447 Esne-Kontrol zenbakikoak (AFNA-NCL 447), ondoko zereginak betetzen ditu:

a) Frisiar Ganaduaren Liburu Genealogikoa edukitzea, bertan idatziz jaso eta kontrolatzen baitira elkarteko ustiategietako abereei buruzko ugaltze-datuak; horri esker, aipaturiko abereen jatorria eta genealogia ezagutu daitezke.

b) Elkarteko ustiategietako abere-produkzioen emaitzak kontrolatzea. Horri esker eta genealogiari buruzko datuei esker, abereeen herentzia genetikoa zein den jakin daiteke, eta ugaltzaileen estalketak orientatu; horrela, produkzioa antola daiteke produkzio-mailarik handienak lortzeari begira, ahalik eta kosterik txikienaz.

Jarduera horiek aurrera eramateko, arlo-lana (zazpi esne-kontrolatzailek eginda) eta bulego-lana beharrezkoak dira, datu guztiak sartzen baitira informatika-programa batean. Hori dela eta, aipaturiko kontrolatzaileak ezezik, idazkari tekniko bat eta bi administratzaile ere behar dira AFNA-NCL 477-ko lan-taldea osatzeko. Datuak Espainiako Frisiar Ganaduaren Konfederazio Nazionalari (CONASPI) lotzen dira nazio-mailan.

Elkarteko azienden bilakaera denboran honako hau da:

| | Mugimenduak | | Azken errolda | | Behiak |
|---|---|---|---|---|---|
| Urteak | altak | bajak | ganadutegiak | behiak | batez beste |
| 1989 | | | 115 | 8.900 | 77 |
| 1990 | 26 | 9 | 132 | 10.000 | 76 |
| 1991 | 17 | 4 | 145 | 10.700 | 74 |
| 1992 | 9 | 8 | 146 | 10.800 | 74 |
| 1993 | 9 | 14 | 141 | 11.000 | 78 |
| 1994 | 27 | 0 | 168 | 12.500 | 74 |
| 1995 | 16 | 4 | 180 | 13.200 | 73 |
| 1996 | 20 | 3 | 197 | 14.839 | 75 |
| 1997 | 27 | 2 | 222 | 15.512 | 70 |

Elkarteko ustiategien banaketa tamainaren eta tokiaren arabera, honako hau da:

| | Ganadutegien tamaina (behi helduen kopurua) | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <21 | | 21-40 | | 41-80 | | 81-160 | | >160 | | Guztira | |
| Aldea | Ustiat. | Anim. | Ustiat. | Anim | Ustiat. | Anim | Ustiat. | Anim | Ustiat. | Anim | Ustiat. | Anim |
| Kantaurialdea | 12 | 201 | 42 | 1234 | 13 | 772 | 2 | 214 | | | 69 | 2421 |
| Ibarrak | 6 | 103 | 29 | 913 | 38 | 2040 | 22 | 2415 | 4 | 1149 | 99 | 6620 |
| Erdiald.-Erribera | 2 | 35 | 6 | 192 | 19 | 1139 | 19 | 2150 | 8 | 2955 | 54 | 6471 |
| GUZTIRA | 20 | 339 | 77 | 2339 | 70 | 3951 | 43 | 4779 | 12 | 4104 | 222 | 15512 |

Ondoko taulan jasorik dago batezbesteko hobekuntza genetikoa Nafarroan:

| | PRODUKZIOA (1) | | | | MOTA | PRODUKZIOA+ MOTA INDIZE KONPOSATUA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kg. esne | Kg. gantz | Kg. proteina | Produk. In. konp. | Azken kalifik. (2) | ICO (3) |
| 1988 | -178 | -7 | -4 | -149 | -0.17 | -141 |
| 1989 | -146 | -6 | -3 | -122 | -0.11 | -113 |
| 1990 | -133 | -5 | -3 | -110 | -0.11 | -111 |
| 1991 | -105 | -4 | -2 | -86 | -0.04 | -77 |
| 1992 | -54 | -2 | -1 | -35 | +0.05 | -8 |
| 1993 | -17 | +0 | +0 | -1 | +0.08 | +34 |
| 1994 | +58 | +3 | +2 | +78 | +0.13 | +127 |
| 1995 | +147 | +6 | +5 | +175 | +0.15 | +234 |
| 1996 | +230 | +10 | +8 | +273 | +0.19 | +339 |
| 1997 | +239 | +10.5 | +7.97 | +181 | +0.21 | +340 |

1) 1988tik 1997ra bitartean jaiotako abereen balio genetikoa 1990ean jaiotakoekin alderatzen du nazio-mailan Kg. esne, Kg. gantz eta Kg. proteina balioetarako.
2) Produkzioen indize konposatua, non biltzen baitira Kg. gantz, Kg. protein eta Kg. esne.
3) Mota (2)ari gehitzen dio.

Kg. esneari buruzko datuen bilakaera behi bakoitzeko eta jetzitako behi bakoitzeko, honako hau da:

| Urtea | dagoen behi bakoitzeko | Jetzitako behi bakoitzeko |
|---|---|---|
| 1991 | 16,50 | 21,01 |
| 1992 | 15,99 | 22,07 |
| 1993 | 17,69 | 24,42 |
| 1994 | 18,92 | 23,51 |
| 1995 | 20,09 | 24,56 |
| 1996 | 20,45 | 24,85 |
| 1997 | 20,41 | 24,80 |

Azkenik, edoskitze osoen, edoskitze bukatuen eta edoskitze-moten bilakaera, honako hau da:

| | | edoskitze bukatuak | | | | | | | edoskitze-mota bukatuak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | edosk. | errealak | | | | 305 egunetan | | | errealak | | | | 305 egunetan | | |
| urtea | osoak | kopur. | kg.es. | kg.gan | kg.pr | lg.es | kg.gan | kg.pr | kopur. | kg.es. | kg.gan | kg.pr | kg.es. | kg.gan | kg.pr |
| 1990 | 6253 | 5992 | 7205 | 256 | 222 | 6751 | 239 | 206 | 4272 | 7813 | 278 | 241 | 7174 | 253 | 219 |
| 1991 | 7142 | 6287 | 7380 | 266 | 228 | 6853 | 245 | 210 | 4592 | 8042 | 291 | 249 | 7283 | 261 | 224 |
| 1992 | 8147 | 7574 | 7666 | 275 | 234 | 7053 | 251 | 214 | 5461 | 8486 | 305 | 260 | 7538 | 268 | 228 |
| 1993 | 8346 | 7982 | 7762 | 277 | 238 | 7170 | 254 | 218 | 5808 | 8504 | 304 | 261 | 7634 | 271 | 232 |
| 1994 | 9292 | 8403 | 8142 | 296 | 254 | 7460 | 270 | 231 | 6394 | 8797 | 320 | 274 | 7847 | 282 | 242 |
| 1995 | 10427 | 9840 | 8793 | 334 | 278 | 7932 | 300 | 248 | 7935 | 9350 | 356 | 296 | 8233 | 311 | 257 |
| 1996 | 10853 | 10215 | 9241 | 345 | 294 | 8266 | 307 | 260 | 8375 | 9819 | 368 | 313 | 8581 | 320 | 270 |
| 1997 | 12507 | 11412 | 9455 | 348 | 301 | 8399 | 306 | 264 | 9276 | 10088 | 373 | 322 | 8724 | 319 | 274 |

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

1998. urtean, aipaturiko jarduerak aurrera eramaten dihardu elkarteak, hau da, arrazaren Genealogi Liburuaren edukitzea eta esne-emaitzen kontrola. Hori dela eta, 1998ko Aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza onartu zaio; kopuru horretatik 7.689.000 pezeta jaso ditu dagoeneko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. Artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## “Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 40.000.000 pezetako "Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko" kontusailari buruz (27300-0 lerroa). Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Gaur arte, izenpetutako laguntza-ebazpenak 4 dira, guztira 19.135.000 pezetakoak, 447 abelbururi dagozkienak, 30 ustiategitan banatuta.

Behiak berriz jartzeko, beste ustiategi batzuetan erositako abelburuak 147 dira guztira (% 32,89 alegia), 6 ustiategitakoak denak, eta 5.800.000 pezeta ordaindu dira, hau da, 39.455 pezeta berriz jarritako buru bakoitzeko.

Behiak berriz jartzeko asmoak 24 ustiategitan eraman dira aurrera ustiategiko bertako abereekin. Berriz jarritako abereak guztira 300 izan dira (kopuru osoaren % 67,11), eta 13.335.000 pezeta ordaindu dira, hau da, 44.450 pezeta buru bakoitzeko.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Zenbatekoak bat datoz aurreko galderaren erantzunari emandakoekin. Zenbatekoak kasu guztietan izan dira hitzartuak eta ordainduak ebazpen bera betez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. Artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

## “ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan" izeneko kontusailari, 83 milioi pezetako 97025-9 lerroari, buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Ez da jarduerarik izan, ezta kopururik ordaindu ere egun arte.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

| IZENBURUA | KARGUA 97025-9 LERROA |
|---|---|
| Nekazaritza-jarduerak ugaritzea | 5.262.896 |
| BEHI-GANADUAREN EKOIZPENA HOBETZEA | |
| Blonde Aquitaine arrazako behi-aziendaren genetika hobetzea. Haragitarako behi-aziendaren genetika hobetzea | 1.612.000 |
| Orreagako erreferentzia-unitatea | 6.277.000 |
| Enbrioiak transferitzea. Esnetarako behi-aziendaren genetika hobetzea | 4.500.000 |
| Esnetarako behi-ganaduaren emaitza-kontrola kudeatzea. Esnetarako behien genetika hobetzea | 8.500.000 |
| Behi-ganaduaren esnearen kalitatea hobetzea | 6.500.000 |
| Esnetarako behien ustiategiak teknikoki eta ekonomikoki gestionatzea. Behi-produkzioa hobetzea | 2.500.000 |
| ARDI-AZIENDAREN EKOIZPENA HOBETZEA | |
| Latxa eta Nafar arrazen genetika hobetzea. Aldez aurreko fasea | 5.000.000 |
| Nafar arrazako ardien genetika hobetzea ustiategien mailan | 5.000.000 |
| Erreferentzia-unitatea. Erremendía: haragitarako ardiak | 3.814.000 |
| Latxa arrazako ardien genetika hobetzea ustiategien mailan | 5.000.000 |
| Ardi-esnearen kalitatea hobetzea | 3.500.000 |
| Ardi-esnearen ardi-erreferentzia-unitatea | 6.000.000 |
| Artzaintza-kontuak | 500.000 |
| TXERRI-AZIENDAREN EKOIZPENA HOBETZEA. HOBEKUNTZA GENETIKOA | |
| Euskal arrazako txerriaren genetika hobetu eta ekoizpen-kostuak eta sistemak aztertzea | 2.000.000 |
| UNTXI-EKOIZPENA HOBETZEA | |
| Untxi-ekoizpenean, intseminazio artifiziala talde bakarrean erabiltzea | 705.000 |
| ABEREEN OSASUNA | |
| Esnetarako ganadu-alorrean, bruzelarrak ez diren abortuak aztertzea | 1.750.000 |
| Baztan-Berako txerri-aziendetan, Aujeszky gaixotasuna erabat sendatzeko plana | 1.500.000 |
| BERTOKO ARRAZAK BABESTEA | 3.948.519 |
| KALITATEKO PRODUKTUAK. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN BALIOA HANDIAGOTZEKO LAGUNTZA | |
| Artisau-teknikak erabiltzen dituzten nekazaritzako elikagai-lantegiei laguntza teknikoa | 3.580.000 |
| SUSTATUTAKOA GUZTIRA | 77.449.415 |

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# “Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa operatiboa" izeneko kontusailari, 40 milioi pezetako 97071-2 lerroari, buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Ez da jarduerarik izan, ezta kopururik ordaindu ere egun arte.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

| IZENBURUA | KARGUA 97071-2 LERROA |
|---|---|
| Hegazti-hazkuntza ez-intentsiboaren ekoizpen-kostuak eta sistemak aztertzea | 4.547.200 |
| Abeltzaintza ekologikoaren ekoizpen-kostuak eta sistemak aztertzea | 3.831.770 |
| Elikagai ekologikoen eskaera zenbatekoa den aztertu eta bertan parte hartzen duten sektoreen beharrak ikertzea | 1.200.000 |
| Haziak eta landare-prod.ko materialak berreskuratu eta erabiltzeko azterketa, landaketa ekologikoan | 598.000 |
| Paisaje-unitateen erabilera aztertzea | 597.875 |
| Ugatzetatik antibiotikoa jaso duten behien esnean antibiotikoak agertzen diren aztertzea | 2.000.000 |
| Esnean eta esnekietan ager daitezkeen sendagai-hondarrak kromatografo-bidez detektatu eta koantifikatzeko metodoa aztertzea | 2.200.000 |
| Zerrien erreferentzia-unitatea. Zerriak kanpoan dabiltzaneko sistema | 5.000.000 |
| Zerrien arnasketa-prozesuak ebaluatzea | 1.000.000 |
| Behikien kalitateari buruzko azterketa. Ekoizpen-sistemak | 2.505.900 |
| Kalitateko ardi-okela sustatzea | 4.505.913 |
| Desagertzeko zorian dauden bertoko arrazen inbentarioa. Auritz arrazako zaldi-aziendaren genetika hobetzea | 3.790.000 |
| Bertoko zaldi-arrazak hazten dituzten aziendei laguntza teknikoa | 2.300.000 |
| Nafar kastako abereak bereizi eta identifikatzea | 2.415.000 |
| Artisau-teknikak erabiltzen dituzten nekazaritzako elikagai lantegiei laguntza teknikoa | 2.850.000 |
| SUSTATUTAKOA GUZTIRA | 39.341.658 |

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. Artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# “Laguntza teknikoa. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Laguntza teknikoa. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Laguntza teknikoa. 5b helburua programa operatiboa” kontusailari, 30 milioi pezetako 97070-4 lerroari, buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Ez da jarduerarik izan, ezta kopururik ordaindu ere egun arte.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

| IZENBURUA | KARGUA 97070-4 LERROA |
|---|---|
| 1997an, 5b helburua programa operatiboa betetzeari buruzko txostena | 2.800.000 |
| 1990tik 93ra bitartean, 5b helburua programa operatiboak epe laburrean izandako eragin sozioekonomikoa ebaluatu eta 1994tik 99ra bitarteko programaren ebaluazioari begira ondorioak ateratzea | 2.000.000 |
| Nafarroako Foru-Komunitatean, komunitateko partehartze estrukturalak zabaldu eta jakitera emateko, 5b helburua programa operatiboari lotuta bideo bat egitea | 3.500.000 |
| Nekazari-herriak garatzeko programak ebaluatzeari buruzko jardunaldiak, 5b helburua programa operatiboan oinarrituta eta komunitateko fondo estrukturalek bultzatuta | 1.000.000 |
| 5b helburua programa operatiboaren turismo-enpresak Nafarroan: bilakaera eta etorkizuna, nekazari-herriak garatzeari begira | 2.000.000 |
| 5b helburua programa operatiboaren industria-enpresak Nafarroan: bilakaera eta etorkizuna, nekazari-herriak garatzeari begira | 2.000.000 |
| 5b helburua programa operatiboaren zerbitzu-enpresak Nafarroan: bilakaera eta etorkizuna, nekazari-herriak garatzeari begira | 2.000.000 |
| 5b helburua programa operatiboaren gizarte-ekipamenduez Nafarroa hornitzea | 2.000.000 |
| Lan-merkatua eta Nafarroako 5b helburua programa operatiboa: Baliabideak eta aukerak | 2.000.000 |
| Nekazaritza-, eskulangintza- eta turismo-ekoizpenak eta Nafarroako 5b helburua programa operatiboa. Nekazaritzagarapenaren etorkizuna | 2.000.000 |
| Nafarroako 5b helburua programatzeko dokumentu bakarrari jarraipen sakona egitea (1994-99) | 3.000.000 |
| SUSTATUTAKOA GUZTIRA | 24.300.000 |

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# “Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua PO" kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

"Mahasti eta Ardo Erakusketa (ez ustiapen) Zentroaren Birgaikuntza. 5b helburua PO" izenburuko 73000-6021-5311 kontusailak, 97073-9 lerroari dagokionak, 95 milioi pezeta jaso behar ditu aurtengo Aurrekontu-Proiektuaren arabera.

Aipaturiko kontusaila zentro hori eraikitzeko erabiliko da, lanak iaz hasi baitziren, eta, gauzak ondo joanez gero, aurten bertan bukatzea espero da.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzua arduratzen da obra horiek kontrolatzeaz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# “Lurzati-antolamendua. Jabetzaren aldaketa lanak. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Lurzati-antolamendua. Jabetzaren aldaketa lanak. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Lurzati berrantolamendua. Jabetzaren aldaketa lanak. 5b helburua programa operatiboa" kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontu proiektuaren arabera, "Lurzati-antolamendua. Jabetzaren aldaketa lanak. 5b helburua programa operatiboa" izeneko 72220-6019-5312 kontusailak, 97030-5 zk.ko lerroari dagokionak, 1.300.000.000 pta. jaso behar ditu.

Aurrekontu horrekin hainbat lan egiten ari dira eta egingo dira. Hona hemen herriak: Oibar, Viana eta Tamarigal, Deikaztelu, Arroitz, Acequia Bayunga, Carcar, Aguilar Kodeskoa, Arrarats, Beruete, Zirauki, Mañeru, Zangoza, Faltzes, Artaxoa, Itsaso, Lakar, Usetxi, Latasa, Barbarin eta Bizkarreta-Gerendiain.

Gaur egun, 772.546.772 Pta. hitz emanda daude, eta 486.616.929 Pta. ordaindu dira jadanik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# “FEOGA-O nekazaritza ustiapenen eraginkortasun hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “FEOGA-O nekazaritza ustiapenen eraginkortasun hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "FEOGA-O nekazaritza ustiapenen eraginkortasuna hobetzea" kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Aurtengo Aurrekontu Proiektuaren arabera, "FEOGA-O nekazaritza ustiapenen eraginkortasuna hobetzea" izeneko 71210-7700-7.123 kontusailak, 97068-2 lerroari dagokionak, 1.480.000 PTA. jaso behar ditu.

Lerroaren gaur egungo egoera ondokoa da:

Aurreko ekitaldietan hitzartu eta ordaindutakoa:

Hobekuntza plana: 523.887.605 PTA.

1. instalazioa: 91.330.185 PTA.

Inbertsio kolektiboak: 765.086 PTA.

Aurreko ekitaldietatik ordaintzeke:

Hobekuntza plana: 251.090.647 PTA.

1. instalazioa: 95.012.269 PTA.

Inbertsio kolektiboak: 700.000 PTA.

Oraingo ekitaldiaren ordainketak:

Hobekuntza plana: 127.946.903 PTA.

1. instalazioa: 62.889.175 PTA.

Lursail berrantolamendua: 1.065.786 PTA.

Kontabilitatea: 1.997.250 PTA.

Lanbide-prestakuntza: 4.600.000 PTA.

Oraingo ekitaldian ordaintzeke:

Hobekuntza plana: 124.603.451 PTA.

1. instalazioa: 34.448.896 PTA.

Lursail berrantolamendua: 618.075 PTA.

Olibondo-landaketa: 358.041 PTA.

Lanbide-prestakuntza: 75.000 PTA.

Baimendu gabe: 158.611.631 PTA.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# “Kalitatea duen haragia. Nafarroako Aratxea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Kalitatea duen haragia. Nafarroako Aratxea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Kalitatea duen haragia. Nafarroako Aratxea. 5b helburua PO" kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Oraingo ekitaldiko Aurrekontu Proiektuaren arabera, "Kalitatea duen haragia. Nafarroako Aratxea. 5b helburua PO" izeneko 72110-4700-7152 kontusailak, 28510-6 zk.ko lerroari dagokionak, 24.000.000 PTA. jaso behar ditu.

Kontusail honek sustapena, aholkularitza eta funtzionamendu-gastuak ditu helburu, Kontseilu Erregulatzailearekin elkarlanean.

Hiru hilean behin, kontusailari dagokion zatia ordaintzen zaio Kontseilu Erregulatzaileari; likidazio osoa, berriz, azken hiruhilekoan amaitzen da, gastuen egiaztagiriak aldez aurretik aurkezturik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# “Errentamenduen Arbitraje Batzordearen Baloreetarako Dietak”, 26460-5 lerroa, kontusailera egindako kreditu-transferentziari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Errentamenduen Arbitraje Batzordearen Baloreetarako Dietak”, 26460-5 lerroa, kontusailera egindako kreditu-transferentziari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Askotarikoa” Parlamentatuko Taldeari atxikitako Nueva Izquierda taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Landa Errentamenduen Arbitraje Batzordeko kideentzako dietak”, 26460-5 lerroa, kontusailera egindako kreditu-transferentziari buruzko galdera egin du. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Landa Errentamenduen Arbitraje Batzordeko kideentzako dieten ordainketa dela eta, zein beharrizan zehatzek -Departamentu horretarako Nafarroako Aurrekontuetan aurreikusi ez direnek- justifikatzen dute kreditu-handitze hori?

Otsailaren 10eko 1/1992 Legean, Landa Errentamendu Historikoei buruzkoan, ezarritakoaren arabera, errentariak jabegora sartzeko eskubidea 1997ko abenduaren 31 arte da.

Sarrera-eskubidea erabiltzeko epearen behin betiko amaieraren ondorioz, joan den abenduan,

aurrekontuen proiektua jada bidalita zegoela, Arbitraje Batzordean 200 espediente inguru aurkeztu ziren, zeintzuk 1997ko hilabeteetan zehar sartutako ehundaka espedienteekin batera jarri baitziren.

Espediente horiek Batzordeak tramitatu beharrak bilkura-kopurua neurri handi batean gehitu du eta, lehenengo hiruhilekoaren amaieran -jada sei bilkura egin ondoren eta dieten kostua bilkura bakoitzeko 80.331 pezetakoa izan zelarik-, hilero bi bilkura egiteko erabakia hartu zen, urte amaieraraino, eta, ondorioz, aurrekontuaren diru-kopurua gehitu egin beharko zen (1.147.944 pezeta gehiago).

Ekaina amaitzean, Batzordeak 12 bilkura eginda izango ditu, eta Batzarrak tramitatu beharreko espediente-kopurua 175 izatera pasako da.

2. Diru kopurua txikia bada ere, zergatik kargatu da “PAC delakoaren eraberritzea. Ingurugiro Programak” kontusailean?

“PAC delakoaren eraberritzea. Ingurugiro Programak” kontusaila, Departamentutik kanpora hartu beharreko bi erabakien zain dago, eta erabaki horiek baldintzatzen dute 1998ko aurrekontuekitaldia: alde batetik, Europako Batzordeko STAR batzordeak, Nafarroako esparrago zuriaren laborantzan tratamendu fitopatologikoen Kontrol integratuaren programa aldatzeko hartzen duen erabakia; Departamentuarekin egin beharreko kudeaketak aurreratuta daude. Bestalde, Bardeetako natur erreserben antolamendurako plana onartzea, horren gauzatzearekin eta garapenarekin lotuta baitago kontusail hau. Hori guztia kontuan hartuta, kontusail honen kreditu guztia 1998an ezin izango dela gauzatu aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

## “Aukera Berdintasun Plana” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak “Aukera Berdintasun Plana” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Aukera Berdintasunaren Plana" izeneko 33900-1 lerroari, 20.000.000 pezetakoari, buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

• Nazioz Gaindiko Topaketa, NOW Programa: Transnational partners meeting

*Buruturiko jarduera.*

Iruña, 1998ko martxoaren 26-27a (10. arloa - 10.1.1. ekintza)

Bigarren topaketa da programatutakoen artean, FUTURA-NET programaren nazioz gaindiko izaeraren kapituluaren barruan, NOW II Ekimena 1997-1999.

Lehen topaketa Erroman (1997ko abenduan) egin eta gero, INAM-eko nazioz gaindiko kideek bigarren topaketa Iruñean antolatzea erabaki zuten. Hona hemen kideak: Comune de Tiana (Italia), Tesalonikako Unibertsitatea (Grezia), Evorako Unibertsitatea (Portugal) eta Hanburgoko ZEBRA.

*Ordainduriko kopurua:* 825.000 pezeta.

• FUTURA NET abian jartzeko fasea

*Buruturiko jarduera.* (10. arloa - 10.1.1. ekintza)

FUTURA esperientziaren material osoa pilatzea, programan jasotako aldizkari elektronikoa egiteko egin-beharreko urratsa baita (prestakuntza-ardatzak, metodologia, ondorioak eta emaitzak)

*Ordainduriko kopurua:* 2.088.000 pezeta.

• FUTURA-NET programaren gainerakoa gauzatzea - 1998

*Aurreikusiriko jarduera.* (10. arloa - 10.1.1. ekintza)

*Aurreikusiriko kopurua:* 5.411.538 pezeta.

• Iruñeko Abokatu Elkargoarekin lankidetza-hitzarmena izenpetzea

*Aurreikusiriko jarduera.*(berehala gauzatzekoa)

(Ofiziozko txanda), 24 ordukoa, tratu-txarren edota sexu-erasoen biktimei laguntzeko; hor ere sarturik dago aholkularitza juridiko orokorra (horren beharra duten nafar emakume guztientzat) eta prestakuntza-jarduerak (ikastaroak, mintzaldiak, etab.)

Tutera, Tafalla eta Lizarrako abokatu elkargoekin hitzarmena izenpetzea aurreikusita dago.

*Aurreikusiriko kopurua:* 4.000.000 pezeta.
(2. arloa - 2.1.2. ekintza)

• "Nafarroako emakumeendako baliabideen eta elkarteen gida" argitara ematea

Jarduera gauzatze bidean dago (inprimategian) (8. arloa - 8.1.1. ekintza)

*Hitzarturiko kopurua:* 1.050.000 pezeta.

• “Gida Juridikoa” argitara ematea:

*Jarduera gauzatze bidean dago:*

Gaurkoturiko legeria-laburpena (erkidego, nazio, Europako Batasun eta nazioarteko mailetakoa), berdintasunaren planaren arloei loturiko gaien ingurukoak. Materiala dagoeneko inprimategian dago.

*Hitzarturiko kopurua:* 1.000.000 pezeta (2. arloa - 2.1.1. ekintza)

• "Foru Komunitateko Emakumeen Osasuna eta Lan-baldintzak ezagutu eta ebaluatzea" azterlana prestatu eta argitara ematea.

*Jarduera gauzatze bidean dago*

Jarduera hau Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren lankidetzaz egiten da.

*Hitzarturiko kopurua:* 2.000.000 pezeta (7. arloa - 7.3.2. ekintza)

1998KO AZKEN HIRUHILEKOAN AURREIKUSIRIKO JARDUERAK

• Giza-eskubideei buruzko jardunaldiak, horien aldarrikatzearen 50. urteurrena baita: Emakumea eta Haurtzaroa, irailak 22-23-24.

*Aurreikusiriko kopurua:* 1.000.000 pezeta.

• Kultura eta Gizartea V. Biltzarrean partehartzea, 1998ko urriak 28-31, “Emakumea” gaiari buruzko txostenik/komunikaziorik onenari saria emango zaio.

*Aurreikusiriko kopurua:* 250.000 pezeta.

• "Demografia eta Gizartea. Argi-ilunak XXI. Mendean" jardunaldiak. 1998ko azaroa.

• Aukera berdintasunarekin sentsibilizatzeko jardunaldiak.

Edizioa

Argitalpena

Planaren aurkezpena

• Besterik.

Azken hiru jarduera horiendako aurreikusiriko kopurua: 2.375.462 pezeta.

| | |
|---|---|
| BETETAKOA, GUZTIRA | 4.963.000 |
| HITZARTUTAKOA, GUZTIRA | 12.661.538 |
| AURREIKUSITAKOA, GUZTIRA | 2.375.462 |
| | 20.000.000 pezeta |

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

33820-0 LERROA: "BILERAK HITZALDIAK IKASTAROAK"

Hasierako Aurrekontua: 7.920.000

Betetze maila: %94,4

*Buruturiko jarduerak:*

| | |
|---|---|
| – Hezkuntza Depart.arekin egin Hitzarm. erans. sinatzea | 3.900.000 pezeta. |
| – Iruñeko Udalarekin egin Hitzarm. erans. sinatzea | 835.000 pezeta. |

– Hitzaldi-zikloa:

Martxoa - Emakumea 98ko Belaunaldian

Maiatza - Emakumea izateko klabeak. XXI. mendeko klabeak (4 hitzaldiz osaturiko zikloa)

Maiatza - Antzerki-emanaldia
García Lorcaren Mendeurrenean
"La Casa de Bernarda Alba" 2.631.000 pezeta

– "Emakumea Gizartean. Proiektu profesionalak" jardunaldietan partehartzea 115.000 pezeta

33850-1 LERROA: "AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK"

Hasierako Aurrekontua: 4.170.000

Betetze maila: %132

*Buruturiko jarduerak:*

– NUParekiko Lankidetza-Hitzarm. Eransk. sinatzea, Nafarroako emakumeen egoerari buruzko Azterketa Sozio-demografikoaren azken fasea 1.970.000 pezeta

– "Ezkontza haustearen ondorioz ordaindu-beharreko pentsioak ez ordaintzearen eragina Nafarroako errealitate juridiko eta sozialean" azterlana. Iruñeako Udalarekin eta Bartolomé de Carranza Fundazioarekin, lankidetzan egin azterlana (azterlan hau egiteko, beharrezkoa izan da aurrekontua egokitzea) 2.722.735 pezeta

– Prentsa aukeratzea 812.869 pezeta

33960-5 LERROA "ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK"

Hasierako Aurrekontua: 38.811.000 pezeta

Betetze maila: %100

Urtarrila-otsaila: Emakume-Elkarteendako dirulaguntzak: deialdia eta erabakia.

33940-0 LERROA "TOKI ENTITATEENDAKO TRANSFERENTZIAK"

Hasierako Aurrekontua: 27.000.000 pezeta

Betetze maila: %100

Urtarrila-otsaila: Toki Entitateendako dirulaguntzak: deialdia eta erabakia.

33950-8 LERROA "EKIMEN SAIATUENDAKO DIRULAGUNTZAK"

Hasierako Aurrekontua: 3.814.000 pezeta

Betetze maila: %68,17

*Buruturiko jarduerak*

– Emakumearen Munduko Bankuaren Lan-Fundazioarekin (WWB) Lankidetza-Hitzarmena sinatzea: Emakume ekintzaileen partehartzea Merkataritza-Etxean 2.480.000 pezeta

Azken hiruhilekoan aurreikusiriko jarduerak:

– Nafar emakume ekintzaileak Emakume Enpresarien Azokan " (Madril) urriak 23-24-25 300.000 pezeta

– Emakume ekintzaileen topaketa Nafarroan 1.000.000 pezeta

33810-2 LERROA "KANPAINA KOMUNIKABIDEETAN"

Hasierako Aurrekontua: 5.143.000 pezeta

Betetze maila: %68,7

*Buruturiko jarduerak*

Martxoaren 8ko kanpaina "Emakumearen Nazioarteko Eguna" 495.000 pta

– Irratietan partehartzea 120.000 pezeta

– "Anorexia eta Bulimia" kanpaina 171.875 pezeta

*Gauzatzeko zorian dauden jarduerak:*

– Bortxa eta tratu txarrak kanpaina 2.000.000 pezeta

*Urte bukaera arte aurreikusiriko jarduerak*

– Agenda 1999 750.000 pezeta

33880-3 LERROA "LIBURUAK ETA ARGITALPENAK ARGITARATZEA"

Hasierako Aurrekontua: 2.454.000 pezeta

Betetze maila: %113

*Buruturiko jarduerak*

– "Osasun-Gidak" berrargitaratzea: Anorexia eta Bulimia 317.000 pezeta

– "Bortxa eta tratu txarrak" liburuska berrargitaratzea 214.600 pezeta

– Giza-eskubideei buruzko jardunaldien eta Hitzaldi zikloen txostenak berrargitaratzea 500.000 pezeta

– "Memoria 97" argitaratzea (inprimategian) 1.000.000 pezeta

– Negoziaketa kolektiboen hitzarmenetan, Nafarroan gertatzen den diskriminazioari buruzko azterlana argitaratzea (inprimategian) 750.000 pezeta

(Kontusail honen kredituak gora egin du aurrekontua egokitzearen ondorioz)

33910-9 LERROA "PRESTAKUNTZARI LAGUNTZEA NEKAZARI-GIROAN - 5B HELBURUA"

Hasierako Aurrekontua: 30.000.000 pezeta

Betetze maila: %97,64

*Buruturiko jarduerak*

– CEINekin Lankidetza Hitzarmena sinatzea, FUTURA-98 Programako Lanpostuak Sustatzeko Ardatza garatu eta gauzatzeko 10.065.251 pezeta

– Lehiaketa publiko baten bidez, “La Productora, Servicios Avanzados”i adjudikatzea FUTURA 98 programan partehatzea sustatzeko ardatzaren garapena. 9.040.000 pezeta

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 6.000 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 140 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 175 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta 12, 3

31002 IRUÑA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).

Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper ekologiko birziklatua